

1919tik | 2.504 zenbakia | 2016/04/24 | 3,90 € | argia.eus



# ARGIA

XABOIAK,  
ARROPA,  
PLASTIKOA,  
KOSMETIKA,  
PESTIZIDAK,  
ETXETRESNAK...

# GURE EGUNEROKO POZOIAK

0-5504  
9 778402 135053


# EGIZU, EGIOZU, ASTERO BERRITZEN DEN OPARIA EREIN KAZETARITZA INDEPENDENTEA

HARPIDETU:

ARGIA ASTERO, HILEAN 12 € BAINO EZ.

ARGIA HAMABOSTERO, HILEAN 7 € BAINO GUTXIAGO

ARGIA HILERO, HILEAN 4 € BAINO GUTXIAGO



943 371545  
HARPIDE@ARGIA.EUS  
WWW.ARGIA.EUS/HARPIDETZA

Urte osoko harpidetza	
ARGIA	40000
ARGIA ASTERO, HILEAN 12€ baino ez.	48000
ARGIA HAMABOSTERO, HILEAN 7€ baino gutxiago	42000
ARGIA HILERO, HILEAN 4€ baino gutxiago	36000



## PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6 Albisteak
- 10 Gazteluko Plazatik
- 11 Hor dena gailu
- 12 Net Hurbil

## IRITZIA

- 19 Asier Blas
- 20 Iñaki Martínez de Luna
- 21 Iñaki Antiguiedad  
Oihana Etxebarrieta



*Euskal estatua eta independentzia hizpide, Andoni Olariaga filosofoarekin egin du Sustrai Colinak bere azken elkarrizketa ARGIAN.* (ARGAZKIA: DANI BLANCO)

- 40 BIZI BARATZEA
- 42 DENBORAREN MAKINA
- 43 ARGIA KOMUNITATEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENeko EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGi-KONTRA:  
EDUARDO APODAKA
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO IRUDIA: DANI BLANCO

## SAKONEAN

- 14 | Andoni Olariaga: "Ezker abertzalean, jende bat mundurik gabe geratu da" / Sustrai Colina
- 22 | Kutsatzaile hormonalak. Berandu eta herren dator Europatik babesa / Unai Brea
- 28 | Haziak. Harreman osasuntsuak ereiten / Mikel Garcia Idiakez
- 32 | Euskal Kosta-Aturri hirigunea gotorleku bihurtu dute Herri Elkargoaren aurkakoek / Mikel Asurmendi
- 36 | Nola lortu gazteek euskararen erabileran eragitea? / Onintza Irueta Azkune
- 38 | Saadet Becerikli, HDP alderdi kurduko parlamentarioarekin solasean / Axier Lauzurika, Aratz Estonba
- 44 | Nega, Los Chikos del Maíz: "Batzuetan desertuan oihuka ari denaren sentsazioa dut" / Xuban Zubiria
- 46 | Artxibo sortzaileak / Gorka Bereziartua Mitxelena

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



## EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza  
diruz lagundua



## Gipuzkoako Foru Aldundia



DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARU DITZAKEZU,  
GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

**Jabetza:** Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagaña Taldeko parteidea.  
**Lehendakaria:** Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estibx Eizagirre.  
**Erredakzioa:** Ane Urkola, Axier Lopez, Estibx Eizagirre, Garbine Ubeda, Gorka Bereziartua, Iker Oñate, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irueta, Pello Zubiria, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.  
**Diseinua:** Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco.  
**Produkzioa:** Antza S.A.L.  
**Harpidetza:** Iraitz Agirre.  
**Salmenta:** Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.  
**Idazkaritza:** Aloña Sorraluze, Bego Zuza.  
**Administrazioa:** Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte, Marijo Aiertza.  
**Web garapena:** Asier Iturralde. **Ikerketa:** Andoni Zulaika.

**HELBIDEAK:**  
Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxe: 943 361048.  
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473 163.  
Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.  
Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.

**POSTA ELEKTRONIKOAK:**  
Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetza: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus.  
Interneten: www.argia.eus.  
Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.  
Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

**HARPIDETZA:**  
Euskal Herria eta Espainiako estatua: astero, 12 € hilean; hamabostero, 6,5 € hilean; hilean behin, 3,5 € hilean.  
Beste atzerriak: 15 € hilean. Airez: 24 € hilean.





PANORAMA

## Herri osoak borrokatuko duela erakusteko garaia

“Ez gara 300, herri osoa gara!” egiten dute oihu Arcelor Mittal fabrikako langileek, haien sendeek eta protestetara batu diren Zumarraga eta Urretxuko milaka herritarrek, jakitun itxierak 350 familia ez baizik eta dozenaka gehiago kolpatuko dituela, oro har altzairugintzak gurean bizi duen krisiaren isla. Hitz egin daiteke zuzendaritzaren prepotentziaz, Txinaren *dumping*-az, argindarraren prezioaz, instituzioen esku-hartze ezaz edota kapitalismoaren haginkadez. Baina horiek guztiak hutsal bihurtuko dira, baldin eta etorkizuneko langile borrokekin, herri osoak baino, 300 lagunek egiten badute bat.

Argazkia: Gari Garaialde (Bostok Photo)

**“Kontrola daitekeen tribunala da Auzitegi Nazionala”**

José Ricardo de Prada, Espainiako Auzitegi Nazionalako epailea.

[argia.eus/multimedia](http://argia.eus/multimedia)



**Baigorriko Etxauzia: euskaldun bat euro bat**

Etxauzia jauregia herritarren esku utzi eta nafartarren etxe bilakatu nahi dute. Horretarako “Euskaldun bat, euro bat” diru-bilketa berezia abiatu dute.



**Gasteizko gaztetxearen 28. urteurrena**

‘Sormena erregai etxeak darrai’ lelopean, 28 urteetan gaztetxetik pasatako belaunaldi anitzen bizipenak batu dituzte.



GAIZKA IROZ

## Burujabetza energetikoa helburu duen proiektua abian

**Ane Urkola Agirrezabala**

@irrikaz

Bederatzi kilowatt (kW) ekoizten dituzten eguzki panelak instalatu dituzte Uztaritzeko Arruntza eskola publikoan eta Kiroleta frontoian. Energia berriztagarrien inguruko proiektuak gauzatzeko beharrezko kapitala biltzen du Ipar Euskal Herriko I-Ener elkarteak. Kapital horrekin, eguzki panel fotoboltaikoak instalatzen dituzte, eta energia elektrikoa ekoiztu eta saltzen dute.

Sozietate herritarra da, eta Ipar Euskal Herriko burujabetza energetikoa du helburu: “Ipar Euskal Herriarrek kontsumitzen dugun energiaren %99 inportatu egiten dugu: ezinbestekoa da energia Euskal Herrian bertan ekoiztea, energia berriztagarrien bidez”.

**Lehena, baina ez azkena**

Uztaritzeko proiektuez gain, hainbat proiektu dituzte buruan. Makeako frontoian eta Hendaiako zentro teknikoan, esaterako, 100 kilowatt-eko eguzki panelak instalatuko dituzte.

Energia berriztagarrien inguruko proiektuak garatu nahi dituzten pertsona zein gune gehiago aztertzen ari da Bixente Ugalde elkarteko langilea: “Espazio berriak aztertuko ditut; proiektuak ahalik eta ondoen eraikitzeko, ekonomikoki eta teknikoki”.

2014ko urrian sortu zen elkarte, eta laguntzaileen lanari esker garatu da. Hain zuzen, lehen lanpostua sortu zuen elkarteak apirilean. Herriak eta herri elkargoak proiektura batzea da elkarteko kideen helburua.

“Sekulako astakeria da torturapeko deklarazioak epaiketa batean erabiltzea”

**JON PATXI ARRATIBEL, #AZTNU GAL KASUKO KIDEETAKO BAT**


#Aztungal kasuko bost nafarrek akordioa lortu dute fiskalarekin eta ez dira kartzelara joango. Gorka Zabala, Iñigo Gonzalez, Iker Moreno, Gorka Mayo eta Jon Patxi Arratibel dira auzipetuak. Ekineko kide izatea eta ETArekin aginduetara ezker abertzaleko hainbat erakunde dinamizatzea egotzen zieten. Epaiaketaren aurreko egunean egindako elkarrizketatik jaso ditugu Arratibelen hitzok. **ARGIA (2016-04-14)**



# Nekazaritzako lurren erabilera munduan

ZERTAN ERABILTZEN DIREN NEKAZARITZAK EKOITZITAKO PRODUKTUAK

Datuak milioika tonatan



2011ko datuak, bateraturik dauden berrienak.

**Iturria:** Brandon Morrison eta Jay s. Golden: *An Empirical Analysis of the Industry Bioeconomy Implications for Renewable Resources and the Environment.* Biosources 10(3), 4411-4440.

Infografia: GARBINE UBEDA GOIKOETXEA



Gipuzkoako Foru Aldundiak hartu duen neurriaren kontrako kontzentrazioa egin zuten Donostiako Gipuzkoa Plazan, Diputazioaren egoitza aurrean.

JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

## Ongi etorri Gipuzkoara... aberatsa bazara

Mikel Garcia Idiakez

@mikelgi

Bai EAJk bai PSEk gogor kritikatu zituzten Javier Maroto eta popularrak, hainbat kolektibori Diru-Sarrerak Bermatzeko Errenta ukatu nahi izan zitelako. Orain Gipuzkoako Foru Aldundia da Diru-Sarrerak Bermatzeko Laguntzak kenduko dituen, eta PPK egin zuen bezalaxe, orain EAJ da etorkinak diru-laguntzetatik bizitzera datozela iradoki duena.

Laguntza horiek “migrazio isuri artifiziala” eragin omen dute, “erakartzeko efektua”, Maite Peña Gizarte Politikako legebiltzarkideak argudiatu duenez. Diru-laguntza horrek ez duela gizarteratzeko balio ere gaineratu du. Baina delako txosten teknikoak zenbat du teknikitik eta zenbat politikotik? Zein datu ditu oinarri? Zer da migrazio “artifiziala”? Etorkin uholdea bizi dugu Gipuzkoan eta ez gara konturatu ere egin? Jakina, jendeak nahiago du lan eta bizi baldintza onenak eskaintzen dizkion gizartean, gizarte osasuntsuaren isla da hori, herritar guztion eskubideak eta beharrak bermatzen dituen gizartearen isla; horren ordez beste behin mamu xe-

nofoboa astindu dute –EAEn biztanleei etxebizitza bermatzeak kanpotik jendea “masiboki” erakarriko zuela esatera iritsi zen Josu Erkoreka jeltzalea– eta kanpotik gure dirua xahutzera etorriko direla saldu nahi digute, orain arteko azterketa eta datuek beldurraren diskurtso hori gezurtatzen duten arren. Sakonean, xenofobia horrek pobreen ganako fobia estaltzen du, Gipuzkoako Aldundia profil jakin batentzat gobernatzen ari dela erakusten ari zaigulako. Bestela, Peñak dioen gisan laguntzak lurralde osoan “modu homogeneoan” eman behar badira, zergatik ez die proposatu Gipuzkoak alderdikide dituzten eta Bizkaiko eta Arabako aldundiak gobernatzen dituzten EAJ-PSEri –baita Nafarroako Gobernuari ere– laguntza berdinak bermatu ditzala, Gipuzkoan eskubide hau ezabatu beharrean? Zergatik gobernura iritsi eta fortuna handien gaineko zerga erreformatzea –hots, aberatsek zerga gutxiago ordaintzeaz– izan da Markel Olano Gipuzkoako ahal-dun nagusiaren helburu nagusietakoa?

Ekonomikoki –sozialki– ahulak are gehiago baztertzea eta aberatsak are gehiago babestea, hori bai gizarte artifiziala, batzuek eraiki nahi dutena.

### EKONOMIAREN TALAIAN

## Diruak ez du mugarik



Juan Mari Arregi

Asteak oso garbi utzi digu zer gizar-te ari garen sortzen eta zer nolako gobernuak dauden munduan. “Panamako paperek” beste behin erakutsi digute kapitalak eta diruak ez dutela mugarik. Ia sektore guztiak (politikoak, ekonomikoak, profesionalak, kultur mundukoak...) daude inplikaturik paradisu fiskal horietan. “Legalitate” horrek babesturiko delinkuentek dira. Mugitu daitezke zergak ordaintzeari izkin eginez, eta fiskalitatearen kontrolpetik urrun fortuna handiak lortuz. Modu horretan, herritarrek gehiago pobretzea sustatzen dute, urteroko zergak ordaindu bai, baina ustezko “krisia” aitzakia hartuta euren eskubide laboral eta sozialak murrizten dizkieten herritarrek.

Krisi honek ez luke egon behar nork bere zergak ordainduko balitu. Nahikoa da gogoratzea munduko errentaren %20 –ia sei bilioi euro-paradisu fiskaletan ezkutaturik dagoela. Panamako paperek azalera-tu dutena zati txiki bat baino ez da, eta gainera “legalitateak” babesturik dago. Obamak berak orain dio legalitate hori aldatu behar dela, eskandalua jakin denean. Zergatik ez da lehenago aldatu? Hautestontzietan aukeratua izan ez den kapitalak gobernatzen duelako mundua. Europa eta AEBak, mundu osoa bezalaxe, merkatarien esku daude, kapitalaren eta diruaren esku.

Eskandalua argitara atera den bitartean, errefuxiatuen dramak hor segitzen du, gerratik eta gosetik ihesi doazen horien sufrimenduak. Haietzako bai jartzen dituzte mugak, ejertzitoea eta polizia daude, askatasunean bizirauteko nahiaren aurka egin dezaten.

Ezinezkoa dirudi egoera ustel eta injustu hau aldatzeak. Hasi beharko ginatke haurtzarotik justizia, berdintasuna, elkartasuna eta herritarren erantzukizuna moduko baloreetan hezten.





BITTOR BENGEOA ALTUNA

## Mozal Legearen Aurkako Astea

**DONOSTIA.** Eleak-Libre dinamikak Mozal Legearen Aurkako Astea burutu du Donostian, apirilaren 9tik 16ra. Apirilaren 13an, mahai-inguruan, Mozal Legea pairatu duten hedabideetako kazetariak euren esperientzia azaldu zuten: Ahotsako Sergio Labaien, Lahaineko Boro, ARGIAko Lander Arbelaitz; eta III. Araña operazioan atxilotu zituzten bi txiolari: @erreharria eta @JEGurzegi. Guztiek nabarmendu zuten herritarren informatzeko, adierazteko eta mobilizatzeko askatasuna dagoela jokoan, eta kolektiboki baino ezingo zaiola aurre egin lege honi. Praktikan Legea balio gabetzeko modu onena, herritarrek eta kazetariak euren burua zentsuratzeari uko egitea eta ohiko moduan jardutea dela azaldu zuten. Hedabide ezberdinetako kazetariak eta herritarrek batuta, erakunde publikoen babes lortzea litzateke lehen urratsa, ondoren erakunde publiko hauek Mozal Legea ez betetzea bermatzeko. Izan ere, Mozal Legea martxan ezarri denetik Hego Euskal Herrian 700 isun jarri direla nabarmendu zuten, eta bertako erakunde publikoak direla berauek jarri dituztenak.

# Hizkuntza eskumen gehiago EAEko udalentzat

Iker Oñate Aiausti

@iker\_onate

Euskaren arloan aldaketak dakartza indarrean jarri duten EAEko Udal Legeak, hizkuntzari lotuta hainbat eskumen aitortzen baitie udalei.

### Maila berean

Euskara eta gaztelania maila berean jarri ditu Udal Legeak. "Euskara Euskal Herriko berezko hizkuntza da (...) Erakundeon jardueretan erabilera normal eta orokorreko zerbitzu hizkuntza eta lan hizkuntza izango da", dio hizkuntza ofizialei buruzko artikulua.

### Urquijori aurre

Legeak neurri bateko babes eskainiko dio euskarari eta indargabe geldituko dira Carlos Urquijo Espainiako Gobernuko ordezkariaren azken urteotako salaketak. Udalek eskumena izango dute ebazpenak, aktak eta erabakiak administrazioari euskaraz bidaltzeko.

### Eskumenak

Besteak beste, euskara planak sustatzeko eta kontratazio publikoan egokien irizten dituzten hizkuntza irizpideak zehazteko eskumena izango dute udalek. Hirigintza planen eragin linguistikoa aztertzeko eta ebaluatzeko aukera ere izango dute.

## LURRIKARAK



# 7,4

gradu Richter eskalan, Ekuadorren jasan duten lurrikararen intentsitatea. 270 hildako baino gehiago eta 2.000 zauritutik gora eragin ditu, baina hildako gehiago aurreikusten dira.

# 7,3

eta 7,0 intentsitateko bi lurrikara izan dira Japonian ere. 40 hildako baino gehiago eta milaka zauritu utzi dituzte.



## ETXEBIZITZA LEGEA BERTAN BEHERA

Konstituzio Auzitegiak tramitera onartu du Espainiako Gobernuak EAEko Etxebizitza Legearen aurka jarritako helegitea eta, beraz, legea bertan behera geratu da auzitegiak helegiteaz erabaki arte. Legeak etxebizitzarako eskubide subjektiboa aitortzen du.



## ARMIARMA 4

Izen horren pean, sare sozialetan "terrorismoa goratzea" egotzita hamahiru pertsona atxilotu ditu Guardia Zibilak Espainiako Estatuan, horietako bat Nafarroan.



## ETXEGABETZEAREKIN LOTU DUTE HERIOTZA BAT

Laboral Kutxa Banketxeak haren aurka abiatutako etxegabetze prozesuarekin lotu du Gipuzkoako Stop Kaleratzeak plataformak Ormaiztegiako Ana Múgica ostalariaren heriotza. "Ezin izan ditu gainditu banketxearen traumak eragindako osasun arazoak".

# Espetxe politikan Urkulluk ez du azterketa gainditu



Xabier Letona

@xletona

**LA CASILLAKO** iraganetik Bilboko Udaleko etorkizunera egiten du euskal preso politikoen aldeko manifestazioak batean bai eta hurrengoan ere bai, pertsona oro harrapatzen duen dialektika humano oinarrizkoenean kateatua. Igande eguerdi batean, milaka pertsonak erantzun zion berriz ere preso ohien deialdiari. Paradoxa da, Euskal Herrian mobilizazio ahalmen handiena duen gaiak Espainiaren borondate politikoen aurka egiten du talka etengabe, berau zartzeko indarrrik gabe. Bi egi esanguratsu hori dira, beraz, gaur egun gatazkaren oinordekotza mingarriene-takoa den preso eta iheslarien gaian: indar handia bai, oraindik nahikoa ez.

Gehiago beharko dela, alegia, espetxe politikan zirrikituak handitzeko, ezker abertzalearen esparru sozial zabal horren bultzada baino. Mobilizazioaz gain, hiru esparru gehiagotan ere eman beharko dira aldaketak datozen hilabeteetan.

**“Legealdi amaieran  
Jaurlaritzarekiko  
balorazioa oso eskasa da  
bake prozesu  
saioari begira”**

**PRESOEK HAIK** egin dezaketena da lehena, legeak dituen zirrikitu guztiak baliatuz, lehenago onartu ez ziren neurriak hartuz, orain ezinbestean. Ezker abertzaleko aparatu politikoak, preso ohiek eta EPPK-k ongarritu dute jada lurra, orain neurri zehatzak hartzen joan beharko dute apurka edo jadanik hartzen ari dira, horietako askok ez baitute izango oihartzun publiko handirik. Presoek euren esparru sozialaren sostengu osoa dute bide kolapilatsu horretan.

Bigarren eremua Espainiako Gobernua da. Eratuko den gobernu berria da klabea eta sikiera espetxe politika zerbait malgutuko den ala ez. Apur bat itxaron beharko da, beraz. Zantzu batzuen arabera, hainbat jarrera malgutuzen ari dira. Esanguratsuenak alor judizialekoak dira, esaterako *Segurako auzia* edo *Aztnugal auziaren* amaierak: beste erremediorik ez zaielako gertzen auzipetuek delitua onartu dute eta fiskaltzak –honen atzean beti da gobernu– zigorrik txikiena ezarri die, espetxera ez joateko moduan; badira beste batzuk ere, esaterako 2015eko udan agindutako *herriko tabernen* enbargoa, oraindik gauzatu ez dena. Bide bat egiten ari da itxuraz, baina espetxe politikan ez da oraindik maila berean islatu.

**EUSKAL INSTITUZIOENA** da hirugarren esparrua. Hauen bultzada ere klabea da, baina hemen ere presoaren gaia desblokeatzeko konpromisoa arras txikia da, behintzat ikusten denetik abiatzen bagara. Gaiak badu bere ikuspegi teknikoa –*Hitzeman* eta abar–, baina batez ere gakoa borondate politikoa da, eta hortik ondoriozta daitekeena gordina da: instituzio nagusiak ez dira presoaren munduan gaur egun dagoen sufrimen-

duari begira; egin daitekeen balorazio biguinenean, botoak eskuratzeko gai arantzatsua da eta ezikusiarrena egiten dute. Torturaren gaian hartu dituzten neurriak, esaterako, oso bestelakoak dira.

Eusko Jaurlaritzarentzat ehunka preso batzuen eta hauen senideen errealtate gordinean ez da eskubide urraketa nahikorik egoera horren aurrean protestatu, egoera hori gizarteratu eta errealtate horren aurrean jarrera proaktiboa erakusteko. Esparru hori behin eta berriz ETaren armagabetzea eta ezker abertzaleak iraganarekiko duen ikuspegira bakarrik lotzeak dena esaten du.

Legealdi hasieran bazen esperantza maila bat Jaurlaritzak bakegintzan egin zezakeenari begira: hiru gai nagusietako bat zen Urkullu lehendakariarentzat krisia eta autogobernuarekin batera. Gainera, Jonan Fernandezek gidatu behar zuen prozesua. Legealdi amaieran, ostera, Jaurlaritzarekiko balorazioa oso eskasa da bake prozesu saioa izan den horri begira; eskasagoa euskal presoaren esparruan egindako lanari lotuz, are gehiago Eusko Legebiltzarrean edo Biltzar Nagusietan sakabanaketaren aurka eta preso gaixoak askatzeko jarrerak argiak direnean.

Baina dagoena dago, eta instituzio nagusien konpromiso maila handiagorik gabe, presoaren gaia bideratzeak denbora gehiago emango du. Interes handiena duen ezker abertzalearen lana izango da instituzioen konpromisoa areagotzea eta beste konplizitate maila bat bilatzea.

Mobilizazioa, presoak, Espainiako Gobernua eta euskal instituzioak. Lau esparru eta hainbat gako. Hori bai, lehenaren bultzada barik, beste hiruek ezin dute, horra mobilizazioaren balio ezinbestekoa. ■

ahal duguren plana euskadirentzat

PROIEKTU  
KOMUNEAN  
ESPAINIAREKIN



# Panamako paperak paradisu fiskalen salatari ala xantaiarako arma?



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Bazekien zertan ari zen Alemaniako *Sueddeutsche Zeitung* egunkariari filtratu zizkionak Panamako Mossack Fonseca kabineteari ostuta 214.000 sasi-konpainiaren datuak. Zalaparta izugarria dabilela uste duenak jakin behar du informazioaren zati bat baizik ez dela azaleratu oraindik. Baina funtsean zer da *Panama Papers* edo *Panamagate* hau, kapitalismo globalizatuaren alde ezkutuaren inoizko filtrazio handiena ala diru zikinaren mafiak berak antolatutako kontrako su prebentiboa?

Mende honetako aurkikuntza, historiako informazio ihes handiena... Panamako Mossack Fonseca finantza aholkurako bulegoak isuri duenaz ari gara, *offshore* bankagintzan ari direnen artean munduko laugarren garrantzitsuenari ostuta zabaltzen ari diren 11,5 milioi agiritatik herritarrei iritsitakoarekin hainbat jende boteretsu zipriztindu duen finantzazko simaurraz. Eta oraindik handienak falta omen dira.

Aste gutxitan oinezko herritarrak ikasi du, *offshore* hitzaz gain, munduko paradisu fiskalen zerrenda ugaria, ohartzuz Karibeko uharte exotikoez gain dirua zuritzen dela AEBetako Nevada edo Delaware, Alemaniak berak daukala bere legedian paradisu fiskal bezala jokatzeko zirrikitua, gaur Europako Batzordeko lehendakaria den Jean Claude Junckerrek 20 urtez agindu duela Luxenburgo izeneko paradisu fiskal europarrean, eta abar luzea. Baina orain jakin nahi litzaiteke zalaparta horrek guztiak balioko ote duen gauzak aldatzen hasteko.

Panamako kabinete baten datuen benetako filtrazioak interes handia du, aberats eta politikari askok horien bidez zuritzen dituztelako zergarik ordaindu gabeko irabaziak. Hala ere, *Moon of Alabama* blogak mesfidati idatzi du: "Panamako paperen filtrazio selektiboak bide ematen dio sekulako xantai ahalmenari".

"Baina asteotako informaziook -dio AEBetako ezkertiarren artean ospea duen *Moon of Alabama*- zabaldu dituz-

te NATO sostengatzen duten prentsa inperio batzuek eta AEBetako Gobernuak finantzatzeko duen Gobernu Kanpoko Erakunde batek; helburu aitortu gabea dute inperio amerikarrak maite ez dituen pertsonalitateak zikintzea. Bide batez, aukera ona ematen dute beste batzuei *kanta arazteko*, faboreren baten trukean eskainiz haien izenak ez zabalteza".

Horrela esanda konspiratzaile baten balorazio eskematikoegia dirudien arren, ematen du datu interesgarri bat: orain deabruaren pare ageri den Mossack Fonseca abokatu bulegoaren delituzko jarduera aspaldi samar zegoela *erreta* agintarientzako.

Duela 16 hilabete, 2014ko abenduan Ken Silverstein ikerketa kazetariak *Vicen* publikatu zuen "*The Law Firm That Works with Oligarchs, Money Launderers, and Dictators*" (Oligarka, diru garbitzaile eta diktadoreentzako lanean ari den abokatu konpainia), agerian utziz Mossack Fonsecanen jarduera. Asteotan aipatu den Baxar El Assaden kusi esku-makilarrena eta beste izen asko hartan ageri ziren.

Blogak bere egin ditu Craig Murray diplomatiko britainiarrak esanak "Hedabide nagusiek zaintzen dute Mendebaldeko oligarkia Panamako filtrazioetatik" artikuluan. Murrayk ere salatzen du filtrazioak utzi direlarik ICI Ikerketa Kazetarien Kontsortzioaren eskuetan, informazioaren gehiengoa ez dela iris-ten ari herritarren eskuetara, *The Guar-*



*dian* bezalako egunkari izen handiko bat ere orain arte mugatu dela Nazio Batuen Erakundeak zigortutako herrialdeetako politikariak aipatzera.

"Nik badakit Errusia eta Txina ustelduta daudela, ez etorri niregana horrekin. Zergatik -galdetzen du Murrayk- ez dituzue gurutzatzen Mossack Fonsecanen artxiboak Mendebaldeko burtsetan dauden konpainia nagusien datuekin eta milionario bakoitzarekin?"

Erantzuna berak aurreratu du: ICI diruz sustatzen dutenen artean daudela korporazio yanki handien fundazioak, hala nola Ford, Carnegie, Rockefeller, W.K. Kellogg edo Georges Sorosen Open Society Foundation.

## Betiko kazetaritzaren azken aukera

"*Will The Panama Papers Kill Journalism?*" (Panamako paperekin hil behar ote dute kazetaritza?) galdetu du Kostas Efimeros greziar eta *Debtocracy* dokumental famatuaren ekoizleak *The Press Project* gunean. Kazetariak beti aurkitu dituzte istorio bikainak herritarren arreta pizteko modukoak, baina digitalizazioaren hasieratik prentsaren papera krisian sartu da.

Hedabide handiek kazetari ekipoak txikiagotu dituzte eta komertzial sailak handitu. "Ikerketa handiek -dio Efimerosek- egun gutxi dira eta kazetariak beren buruak zentsuratzen dituzte, kasu eginez beren publikitate leihotan agertzen diren konpainiei kalte egiteari". Konpainia handiek kalumniagatik eska



*“Broadsheet” hedabideak argitaratutako grafikoan, Panamako paperetan inplikaturakoetatik orain arte hedabide nagusiek nabarmendu dituzten pertsonalitate politikoak. Mendebaldekoak oso gutxi, nahiz eta munduko finantzak Mendebaldeak maneiatu. 2014an Ken Silversteinek azaldua zuen Mossack Fonseca konpainia zela aberatsek zerga iruzurra egiteko erabiltzen dituzten sasi-konpainiak sortu eta kudeatze lanetan munduko liderretakoa. Honen 40 urteko erregistroen zati txiki bat baino ez da orain arte herritarrengana iritsi dena.*

ditzaketen kalte-ordain handiek beldur ematen dutenez, argitaratu behar diren istorioek legezko galbahe oso xehea iragazi behar dute, edozein erreklamazio saihesteko. Baldintza horietan, kareletik itsaso basatira botako duten beldurrez jokatzeko du kazetariak.

Kazetaritza krisian murgilduta zebilela azaldu dira komunikazio eredu berriak. Nagusiki *WikiLeaks*, salaketa eraman duena bakarkako jarduera izatetik hedabide mota berri batera. Eta *CableGate* hartatik pasatuz *LuxLeaks*, *SwissLeaks*, *Chelsea Manningen* agerpenak, Edward Snowden eta Herve Falciani-ri netatik paseaz heldu gara *Panama Papers* hauetara.

Oraingoan, uste du Kostas Efimerosek, kazetaritza dago bere izen ona berreskuratzeko azken aukeraren aurrean. Eskandaluak bata bestearen ondoren

plazaratzeak, horrek ez badie errudunei ez ondoriozik eta ez zigorrik ekartzen, jendea oldartzeko baino gehiago balio du herritarren artean etsipena eta derrotismoa nagusitzeko.

“Panamako paperen agertzea –idatzi du Efimerosek– orain arteko filtrazioetatik arras ezberdina da. Lehenbiziko aldiz ez dute une bateko argazkia eskaintzen. Haien bidez egin daiteke azken 40 urteotako eredu ekonomikoaren eta honen garapenaren ikerketa sistematikoa eta analitikoak. 11,5 milioi agiri dira 1977tik 2015eko amaiera artekoak eta lehenbiziko aldiz dauzkagu eskueran (ustez) behar ditugun tresnak azaltzeko benetan konspirazio globala izan dena: aberatsen konspirazioa pobreen bizkarretik. Eta zer izan liteke kazetaritza ez bada gehien interesak defenditzea bakar batzuenen kontra?”.

ICI kontsurtzioak Efimerosen ustez oker jokatu du dokumentazioaren aztertze eta hautaketa hedabide handi batzuen eskuetan utziaz. Ez da harriztekoa AEBetako kasik inor ez azaltzea. Baina hori baino garrantzitsuagoa, eskandalua aurkezteko maneran, badirudi arazoa zera dela, kapitalista lotsagabe batzuek lapurreta egin dutela iruzur eginez gainerakoan ukitu ezina den merkatuaren lege sakratuei.

“Kazetariak aipatzen dituzte zenbait boteretsu –beren hedabideen akzioedunei arazorik sortu gabe, noski– baina huts egiten dute osotasunean azaltzerakoan argazkia: hau elite txiki batek aberasteko antolatutako konspirazio globala da. Kazetariak huts egiten dute jendeari kontatzerakoan Mossack Fonseca ez dela sistemaren pieza gaizto bat: sistema gaizto baten pieza da”. ■

**ZINKUNEGI OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia  
T. 943 420 624  
info@zinkunegioptika.com  
www.zinkunegioptika.com

Facebook and Instagram icons.

Andoni Olariaga, filosofoa

# «Ezker abertzalean, jende bat mundurik gabe geratu da»

Zer gelditzen da hitzak nekatuta daudenean, kontzeptuak lurretik urruntzen diren lainoak direnean, bihotzak pentsatu eta buruak sentitzen duenean...?



Sustrai Colina

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

## IN-DE-PEN-DEN-TZI-A.

Orain arte abertzaletasuna gehiegi zen-tratu da motibazio irrazionalan, historia puzteraino. Abertzaletasunaren azken korronteak, ordea, “independentzia zergatik eta zertarako?” galderari erantzuten ari dira, onura ekonomiko, sozial zein kulturalak mahai gainean jarritz. Tamalez, zergatiak besterik gabe lantzeak ez du bloke berririk sortuko, ez du jenderik mugiaraziko. Independentziaren beharra orain arte baino mami-suago arrazoitzeaz gain, fidelitateak zerk sortzen dituen hausnartu behar genuke. Nola sortzen dira nazio pertenez-entziak? Fidelitate horiek lanketa arrazional bati esker mugitzen dute jendea? Aurrez aurre daukagun blokeria iristeko modurik badugu? Ez diote alferrik Jose-ba Gabilondok eta Eduardo Apodakak lur hori goldatu behar dugula lehenbizi, gure nazioa berridatzi ideia horiek bi-dea egin dezaten.

## Nola hasten da bidea?

Nazioa egunero eraikitzen eta desegiten den zerbait dela ulertuta. Zer da nazio eraikuntza? Egunero *El Correo*-k “pueblo” hitza erabiliz egiten duena. Esplizituki agertu ez arren, nazioa da proiektu, balio eta eskubide guztiak gauzatzeko

aintzat hartzen den lehen baldintza. Podemosek ikuspegi soziala lehenesten duela dioenean, espainiar herritarren-tzako lehenesten duela dio esan gabe. Nazioaren ulerkera aldagarri honek ez luke jendea beldurtu behar. Nazioa estatikotzat jota ez genuke borroka esparrurik edukiko. Aldagarritasunak egunero-koan kokatzen du guda-zelaia. *El Club de la Comedia*-rekin barrez lehertzen naitzenean, garbi izan behar dut umoregile hori espainiar nazioa eraikitzen ari dela, darabiltzan erreferentzia sinbolikoez nire Espainiarekiko pertenez-entzia areagotzen dutela. Guk nahi ala ez, horrek eragina dauka gure izaeran. Esaterako, politika ulertzeko oso modu espainola daukagu. Ez dakigu kritika eraikitzaile-rik egiten, ados ez gauden lehendabiziko hitzean etxera joateko mehatxua jaurtitzen dugu. Hala, mugimendu geroz eta zabalago bat nahi badugu, diferentziak komunean dugunari eutsiz adierazten ikasi beharko dugu.

## Balio digu besteak bezalako estatu bat izateak?

Normalak izateari beldurra diogu. Ez dugu normalak izan nahi. Erosoa da zure proiektu politikoa kontra eginez eraikitzea. Estaturik gabe ez darama-

zu estatuaren miseriarik bizkarrean. Horregatik, “Euskal Estatu feministak izango da edo ez da izango” ala “Euskal Estatu euskalduna izango da ala ez da izango” esatea edo ezer ez esatea gauza bera da niretzat. Dilema hori ez da existitzen. Estatu jendartearen indar korrelazioen isla izango da. Euskal Estatu gaur sortuko balitz kalean egunero ikusten dugun horixe izango litzateke. Ezin dira estatu egiturak zure jendarte baino askoz aurrerakoiagoak izan. Gaitz bat da jendarte oso konbentzionala dela ahanzte. Herriarentzako planak herria kontuan hartu gabe egiten dituen iraultzaile ilustratu asko dago. Gustatu ala ez, *El Correo Español* da hemengo egunkari irakurriena. Horrek laburbiltzen du hemengo sen ona.

## Horregatik eztabaidatzen dugu hainbeste independentziaz independentistekin eta hain gutxi independentzia ukatzen dutenekin?

Oraintxe bertan independentziaren aurkakoek, Podemosen eskutik, euskal jendartearentzat erakargarria izan daitekeen proiektu oso definitua daukate. Guk ez. Gu independentzia zergatik bai eta zergatik ez eztabaidatzen tematzen gara, baina noiz definituko dugu gure

A man with a beard and short brown hair stands in the center of a cobblestone street. He is wearing a dark leather jacket over a dark sweater, light-colored trousers, and brown shoes. His hands are in his pockets. The street is paved with light-colored cobblestones, and a white curb is visible in the foreground. The lighting is bright, casting a shadow of the man onto the ground.

## Andoni Olariaga

1984, Berriz

Filosofian lizentziatua EHU. Amerikar pragmatismoaren pentsamendutik abiatuta erlatibismoaren azterketari buruzko tesia bukatzen dabil, egun. Lapiko kritikoko kide, hedabideetako kolaboratzaile eta Jakin taldeko partaide da, besteak beste. *Modernitatearen auziaz* (Jakin, 2009) idatzi zuen Jon Jimenezekin batera, eta *Independentzia helburu* (Txalaparta, 2015) saiakera liburuan parte hartu du.

estatu eredu? Jendea erakarri nahi baduzu argi markatu behar duzue zure helburua. Oraingoz, ordea, horretarako baldintzak sortzen ari diren arren, ez dago estrategia independentistarik. Estrategia hori aldebakarrekoa izango bada, karta guztiak jokatu beharko ditugu bideak urratzeko eta erretzeko beldurrik gabe. Esaterako, taktikoki interesgarria izan daiteke alde bakarrekiko posizio batetik alde biko proposamenak egitea, estatua onartuko ez dituela jakinik. Zure proposamenak zure jendaratean zilegitasun osoa badu, berehala erakusten duzu Espainian legebiltzarrek muga handiak dituztela. Ezingo dugu goitik beherako estrategia independentista diseinatu baina unean uneko mugimenduei esker jendearen ikuspegia zizelkatu daiteke. Oraintxe bertan, gehiengo handi batek uste du, EAEn zein Nafarroan ondo bizi garela, ez dela aldaketarik behar, legebiltzarrek aski askatasun dutela. Hori da aldatu behar dena. Horrela soilik jarri daiteke zilegia legalaren gainetik. Denbora beharko da eta ezin dugu pentsatu denbora tarte horretan jendarateo mobilizatuta mantendu dezakegunik. Mobilizazioak pikoa harrapatzen duenean emandako urratsa sendotzea da gakoa, atzerazekin bihurtzea. Gradualismoarekin ez goazela inora aurpegi-ratuko didate baina jendarteek horrela funtzionatzen dute.

### Aldebakartasuna. Azken aldiko ezker abertzalearen hitz magikoa.

Oraindik ez dugu asmatu aldebakartasuna zertan datzan azaltzen. Horregatik, oraingoz, daukagun indarra mentala da estrategikoa baino gehiago. Jende batek aldebiko eskemaren betaurrekoekin jarraitzen duenez, ezker abertzalearen irakurketa kritiko guztiak estatuari egindako kontzesiotzat dauzka. Irakurketa horiek herriari begira aztertuz gero, ostera, bestelakoak dira analisiak eta epaiak. Askapen mugimenduak urteak eman ditu galdera batzuei erantzun nahian, eta erantzunak bazituela uste zuenean, galderak aldatu dira. Naturala da 60ko hamarkadako zutabe ideologiko zenbait iraungita egotea. Nola erakitzen eta deseraikitzen dira nazioak? Non sortzen da jendearen sen ona? Zein indar daukate komunikabideek? Horiek dira erantzun beharreko galderak, orain arte ezkerrek eztabaida ideologikoak beste plano batean kokatzen zirela uste


izan badu ere. Podemosek argi frogatu du arrazoa baino zerbait gehiago behar dela jendea konbentzitzeko. Zuretzako ideien borroka lehen mailako auzia bada, borroka hori non gauzatzen den detektatu behar duzue, eta pertsona bat Klaudio Landaren programara joateko prestatu behar bada, prestatu. Jendeak errealitatea beste modu batera ikus dezan zure diskurtsoa marko batzuetara egokitu behar da. Hori hala, orain ez daukagu marko egokirik.

### Aldatu daitezke markoak?

Errealitatea bere horretan erakustek ez duela piperrik balio jabetzea da markoa aldatzeko lehen baldintza. Bukatu da arrazoa daukagulako irabaziko dugula pentsatzea. Zein da Izquierda Unida eta Podemosen arteko funtsezko aldea? IU ezker-eskuin marko zaharrea mugitzen da "oligarkia" bezalako hitz gastatuekin, eta Podemosek goi eta behe markoa berreskuratu du "casta"-ren antzeko esatera freskoekin. Gauza berdintsua diote biek baina eguneroko marko eguneratu bat dauka batek, beste mende batekoa besteak. Hori da diferentzia. Podemosek ez du errealitatea borrokatu, errealitatea hor zegoen, agerikoa zen. Ezkerreko alderdi gehienek, ostera, uste dute jendeak ez diela botorik ematen ez direlako errealitateaz konturatzen. Horregatik dabilta etengabe datuak ematen, jendea gertatzen ari denaz jabetzean, euren gana hurbilduko delakoan. Ez dute ulertzen ez dela kontzientzia kontua. Jendeak bere markoa dauka eta errealitate gordinena erakutsi arren zure diskurtsoa ez bada marko horretan kabitzen jai daukazu. Susmoa daukat ezker abertzaleak zerbait esaten duenero beste baten markoaren baitan esaten duela. Gaur EAJrean, bihar Podemosen, etzi... Horrela ezin da. Goazen gure marko sortzera. Ulertu ditzagun kontzeptuak borroka esparru bezala. Kontzeptuek adiera anitzak dituzte, errealitatea ez da bat eta bakarra.

### Gurtzen ditugun ereduak zerikusia dute errealitatearekin?

Desfase izugarria dago benetan izatea gustatuko litzaigukeenaren eta benetan garenaren artean. Soziologia minimo bat behar dugu, sen ona aztertu, jendeak zertan gastatzen duen eta zer kontsumitzen duen ikertu. Eragin zuzena dauka euskal kulturarengan. Irakurle



baino idazle gehiago daukagulako kezkatzen gara, baina zer kontsumitzen du jendeak? Bideo-jokoak, pornoa, motorrak... Euskarak badu presentziarik alor horietan? Ez dugu euskara zikindu nahi, aldaketa sozialaren ideal guztiekin lotu nahi dugu, baina euskarak ere kontsumo joeretara makurtu beharko du. Bestela, euskaraz eskaintzen ez dena erdaraz kontsumituko da. Ezin dugu etengabe gure balore erromantiko eta zerutiarren hipokrisian bizi. Kontua ez da herri mugimenduak egiten duen oro ona dela eta





erakundeetatik datorren guztia txarra. Frente sozial eta instituzionala eskutik joan ezean ez dago zereginik. Herri mugimenduak erakundeari bidea zelaitu behar dio, hark aldaketa ahalbidetu dezan. Esaterako, Gipuzkoan, atez ateko zabor bilketaren gaian, herri mugimenduak atez atekoaren aurkako oldar kontserbadoreari askoz modu sutsu eta masiboagoan egin behar zion aurre. Ez du balio bando berekoak izan eta behin erabaki-guneetara iristean elkarri moka edo bakoitza bere aldetik ibiltzeak.

**“Elkarbizitza jokoan eta zu berriz bertso ttikietan...” kantatzen du Ruperrek.**

Hainbeste urtetako borroka baten ondorioz, ezker abertzaleak oso identitate emozional fuertea sortu du. Oso zaila da identitate horren baitan krika-krakarik eragin gabe ezer aldatzea. “Borroka da bide bakarra!” oihukatzen pasa dituzunean urteak, justizia trantsizionalak nola ez dizu minik emango? Jendeak ez du debate ideologikotzat hartzen, bere identitatearen aurkako erasotzat baizik. Horregatik

**“Euskal Estatua gaur sortuko balitz kalean egunero ikusten dugun horixe izango litzateke. Ezin dira estatu egiturak zure jendartea baino askoz aurrerakoiagoak izan”**

leporatzen dizu askapen mugimendua deuseztatzen saiatzea. Norbait bere mundua bere begien aurrean puskatzen diozunean alferrik esango diozu pragmatismoa behar dela. Ikuspegi mitiko horrek eraman du jendea borrokara, ez pragmatismoak. Ikuspegi mitifikatu horrek, ostera, munstro bat sortu du eta oraingo debateak ez dira debate intelektualak, debate emozionalak baizik. Hortik dator ilusio falta orokorra. Ezker abertzalean, jende bat bere mundurik gabe gelditu da. Guztiontzat da berko-katze eta birziklatze aroa. Jende askok aldaketa barneratu eta aurrera egingo du eta beste asko hor geratuko dira betiko. Denbora kontua da.

#### Alderdi politikoek benetako parte-hartzea asimilatzea denbora kontua da?

Ez. Kataluniak ipurdi bistan utzi duen gure kultura politikoaren beste gaitz bat: Ez dakigu aurrez erabat definitu gabeko estrategia aurrera eramaten, ez gara bidera aurreikusitako gabe ateratzen zaizkigunak kudeatzeko gai. Erabateko kontrolatu nahian oinarritzen dira gure alderdiak. Eurek uste dutena pentsatu

### Azken hitza: Gure Esku Dago

"Etiketa politikoa kenduta mugimendua are gehiago politizatzen dugulakoan nago. Horixe da hegemonia, zurea denek naturalizat hartzea. Hori hala, Gure Esku Dagok malguago izan behar luke. Joera handiegia daukagu herri guztietan eskema berbera errepikatzeke. Nahi ala ez, ezker abertzaleko eta EAJko jendeari egiten zaio keinu. Zer da helburua, ordea, abertzaleak batzea ala abertzaleak ez direnak erakartzea? Nor konbentzitu nahi dugu, konbentzitu daudenak ala ez daudenak?"

.....  
ezean jendeak hanka sartuko duela konbentzitu bizi dira. Utzi jendeari hanka sartzen! Baina ez, nahiago dute botoak eta boto-emaileak eurenak direla sinesten segi. Horregatik larritzen dira

jendeak hauteskunde araberako bozkatzen duela konturatzen direnean. Nire ustez, alderdiek pozik hartu beharko lukete bozkaren likidotasuna. Bakoitzaren proiektuak jendartea seduzitzeko duen gaitasunean kokatzen du borroka politikoa. Blokeak erabat definituta daudenean, askoz mugatuagoa da zure borroka esparrua.

#### Mehatxuak aukera izan daitezkeela, alegia.

Fidelitate berriak sortzeko aukera paregabeak eskaintzen dituen aroa bizi dugu. Fidelitateak ez dira betiko izaten, baina emozionalki zein arrazionalki arrastoa uzten dute zugar. Gainera, jendartea ezin da, orain bezala, etengabe lur-zorurik gabe ibili. Lehenago edo beranduago, ziur naiz xake taula berriz definituko dela eta taula berrian ere nazioak pisua izaten segiko duela. Oso garrantzitsua izango da datoen urteetan garatzen dugun gure nazioaren kontakizuna. Ez da kasualitatea Joseba Sarrionandia zapalkuntza ikuspegi batetik denak integratzeko egiten ari den ahalegina. ■

# 2015/2016

# zientziaazoka

elhuyar da

Ikertzaile gazteen Euskal Herriko zientzia-azoka

APIRILAREN  
23an  
larunbata  
**bizi**  
ikerketan!

**12:00**  
**Azokaren irekiera**

**12:00-14:00**  
**Arkupeak**  
Gazteen stand-ak

**12:00-14:00**  
**Karpa**  
Esperimentuen Txokoa

**14:30-15:30**  
**Eszenatokia**  
Zientzia-espektakulua

**16:00-17:00**  
**Eszenatokia**  
Diploma-banaketa

**17:00-19:00**  
**Arkupeak**  
Gazteen stand-ak

**17:00-18:00**  
**Karpa**  
Esperimentuen Txokoa

**19:00-20:00**  
**Eszenatokia**  
Sari-banaketa eta agurra

## Bilboko Plaza Barria

Antolatzailea

**elhuyar**  
Zientzia

Babesleak

**Bilbao**

**UPV**

**FECYT**

**IK4**

**EUSKALITZ**

**IBERDROLA**

**Bizkaia**

**VISIONTECHLIFE**

**UPNA**

**upna**

**Deusto**

**MONDRAKON**

**tecnalia**

**IK4**

**BTEK**

**MAGMA**

**tecnopole**

**Fundazio**

**T2B2**

**Casco Viejo**

# Multilateralismoaren onurak geopolitikan

**A**RGIAN askotan idatzi dugu politikariek eta hedabideek nazioarteko politikan erabili ohi duten moral bikoitzaz. Egunero aurki ditza-kegu adibide zakar ugari, baina, agian, AEBetako estatu idazkari John Kerryk Hiroshimara berriki egin duen bisita izan da guztien adierazle hoberenetako bat. Kasu horretan, egun historikoaz hitz egin dute masa komunikabideek. Ordea, ez dugu inolako kondena edota barkamen eskaera egiteko exigentziarik entzun edota irakurri.

Madril, Londres, Mosku, Paris, Bruse-la eta New York hiriek pairatutako atentatuak terrorista izendatzen ditugu, baina Hiroshima eta Nagasakiko eraso- bano terroristagorik imajinatzea kost- a egiten zait. Zuzenean 200.000 hildako inguru bi bonbardaketetan, aldi berean beste milioika batzuek zauriak edo aldi luzerako ondorioak pairatu zituzten. Washingtonek izua eta suntsiketa ba- rreiatu zituen Erresuma Batuarekin adostuta. Ondoren, AEBetako ejertzi- toak Japonia okupatu, bertako konsti- tuzio osoa idatzi, inposatu eta Asiako ipar-ekialdea nuklearizatu zuen. Ordu- tik, munduan arma nuklearrak eraso- tzeko erabili dituen herrialde bakarrak jarraitzen du esaten zein herrialdek duen eskubidea eta zeinek ez, arma nuklearrak izateko. Ironikoa litzateke ez balitz politika errearen aurpegi gordina.

Inperioaren bozeramaile diren mendebaldeko hedabide gehienent- zat, gerra irabazten duenak edota indartsuena denak ez omen du ter- rorismorik (sic) praktikatzten. Bere bonbak humanitarioak eta okupa- zioak demokratizatzaileak dira. Area- go, komeni da beste inork ez izatea inperioak duen gaitasun militarra, ahal bada inork ez dezala mugatu NATOren botere absolutua, hori ha- labeharrez ona baita munduarentzat



Asier Blas

EHU-KO IRAKASLEA

@AsierBlas

Mendebaldeko hedabide gehienak eskolako “matoia”ren –harroputzaren– esanetara daude. Horrela bere botere absolutua egikaritu ahal izango du, ume guztiei ogitarteko zati bat –edo osoa– kendu ahal izateko nahi beste alditan

(sic). Patioko *matoi* edo harroputza- ren paradigma da.

Mendebaldeko hedabide gehienak eskolako matoiaren esanetara dau- de. Horrela bere botere absolutua egikaritu ahal izango du, ume guztiei

ogitarteko zati bat –edo osoa– kendu ahal izateko nahi beste alditan. Matoi gehiago egongo balira ordea, matoi nagusiaren boterea mugatuta egon- go litzateke. Bakoitzak bere menpeko ikasleak izango litzuzke, baina inork ez luke patio osoa kontrolatuko, eta batzuetan, matoiaren artean esparru liberatuak egongo lirateke ikasle ba- tzuentzat, esparru horretan matoiak ez lirateke ausartuko ogitarteko zati bat lapurtzera, ez baitakite keinu ho- rrek beste matoiak haserretuko ote litzuzkeen. Kontrolatu gabeko esparru horietarako matoiaren arteko “araudi ez idatzia” adostu ohi dute. Horiei esker eta matoiaren ugaltze prozesuari esker, ikasle ahul batzuek subiranotasun esparruak topatzen dituzte matoiaren eremuetatik kanpo.

AEBetan ondo ezagutzen dute tirania ekiditeko boterea sakabanatzeak di- tuen onurak. Ipar Amerikako erregi- men politikoa pisu eta kontrapisuen sistema da, non patioan matoi ugari aurreikusi eta horien arteko borroka arautzen duen. Baina, AEBek etxean nahi dutena ez dute munduarentzat nahi. Horri esker mendebaldeko he- rrialdeen artean ez da egon sezesiorik. Geroz eta indartsuagoa bada inperioa, orduan eta zailagoa da sezesio bat ger- tatztea bere baitan. Horregatik, bitxia egiten zait euskal abertzale batzuen artean zabaltzen ari den joera inpe- rialista, alegia Mendebaldeari, patioko matoi nagusiari, koipea ematea zuze- nean edota zeharka bere etsaien aurka- ko jarrera sustatuz. Baina, noizbait Euskal Herriak independentzia lortuko badu, hori izango da mundua multi- polar bihurtzen ari delako. Inperioa- ren boterea geroz eta mugatuagoa da. Inperioak araudi ez idatziak hausten dituztenean, sezesio prozesuetan ere bai, beste matoiak maizago aurpegiatu eta oldartu egiten zaizkio. ■

# Euskara ikusezina

**E**uskararen komunitatea badoa pixkanaka trinkotzen. Euskalgintza (herritarra zein instituzionala) gero eta sendoagoa eta eraginkorragoa da. Nabarmena da euskarak eremu horretan izan duen aurrerakada.

Bestelakoa da, aldiz, gizarte zabaleko dinamika. Bertan, urratsak modu lausotuan baino ez dira islatzen. Erabile-ra areagotzen doa, batez ere ume eta gazteengan, baina poliki eta lilurarik piztu gabe. Euskara ez da erreferente garrantzitsua gehiengoarentzat; ezta ume edo gazteentzat ere. Horren lekuko, adibidez, Amelia Barquinen blogak dioena: “Zure gurasoak astun samarrak dira euskararen kontu horrekin, ezta?”. Gizarte giro eta alor gehienetan euskara ikusezina da. Edo, bestela, astuna. Ez da *cool*, ez du *glamourrik*.

Ezin da esan ekimen interesgarri edo baliotsurik ez dagoenik. Produktu eta zerbitzu onak gero eta ugariagoak dira. Adibide polita Labur Bira Film Laburren Zirkuitua da. Euskaraz lantzen ari diren beste zenbait arlotako edukiak ere kalitatezkoak dira. Horren lagin ezin hobea literaturarena da. Baina, hainbat hizkuntzatar itzuliak izan diren euskal autoreak ezezagunak dira herritar askorentzat. Hurbilagoak eta baloratuagoak dira gurean gaztelaniaz



Iñaki Martínez de Luna  
SOZIOLOGOA

Euskaraz kontsumitzen dena lekutan dago hitzun euskaldunen proportzioetatik. Ezezagunen artetik ezezagunenak tokiko komunikabideak dira

edota ingelesez idazten duten egile asko, euskarazkoak baino.

Beste horrenbeste gertatzen da, bestalde, euskarazko hedabideekin. Euskaraz kontsumitzen dena lekutan dago hitzun euskaldunen proportzioetatik. Ezezagunen artetik ezezagunenak tokiko komunikabideak dira.

Berariazko sareak osatzen dituzten euskalgintzako lagunak (teknikariak, euskaltegiak, mintzapraktika taldeak, euskarazko kultura-guneak eta abar) dira euskarazko produktuak kontsumitzen dituzten bakarrak; ez, euskalduna izanik ere, edozein herritar arrunta. Eskaintza euskaldun konprometituen hesian gelditzen da. Salbuespen bat *Loreak* filma. Horrek gurean oihartzun zabala lortu du kanpoko erakusleihoeetatik iritsi zaigunean; Goya eta Oscar sariari eskutik, alegia.

Kultura-produktuak izan edo hedabideak izan, ongi landuak diren ekimenak ez dira arrakastatsuak jendaurreko agertokietan. Horren arrazoi nagusia, jendaurreko *plaza handian* ezezagunak izatea da. Duten erakarmen falta hortik abiatzen da. Ezagutu ezean, ezinezkoa da *glamourra* lortzea.

Joera orokor horretatik kanpo dago Korrika. Zergatik? Euskalgintzaren baitako eta kanpoko gizarte eragile mota askoren babesa eta bulkada jaso dituelako.

Baina, euskalgintzako eragileak elkarri bizkarra emanda agertzen dira ekimen gehien aurrean. Ondorioz, ikusezina jarraitzen du izaten euskararen unitertsoak. Etorkizuna bermatu beharko dioten ume eta gazteentzat ikusezina. ■

## Europa bat-batean

KANTU INPROBISATUAREN NAZIOARTEKO TOPAKETA

APIRILAREN 16TIK 23RA GIROTZE SAIOAK EUSKAL HERRI OSOAN ZEHAZ

16 Bilbo / 17 Hernani / 19 Donostia / 20 Iruñea  
21 Markina-Xemein / 22 Uztaritze / 23 Aramaio



www.europabatbatean.eus

# Hitz globalak gizenduz



Iñaki Antigüedad  
AMAIURREKO  
DIPUTATU OHIA

**G**ero eta gehiago hitz egiten dugu burujabetzaz eta independentziaz, aldeko garenok behintzat. Halere, nire ikuskeratik ez datoz bat hitzoi emandako garrantzia eta edukiak. Hitzetan jartzen dugu indar handiagoa, edukien garapen ordenatuan baino. Horrek kezkatu egiten nau. Aldaketa sakona eskatzen duten halako hitz globalak edukien ibilbide-mapa iradokitzaileaz gizendu gabe hitz hutsalak suertatu daitezke, jatorri politikoaz hitz on aldekoak garenon lasaigarri, baina haratago zabaltzeko zailtasunez. Gaurko agertokia da horren adibide, mugatuta gaude.

Independentzia, burujabe garelara egin dezakegun hautua da, beste hautu batzuk ere aukeran daudela. Hortaz, nire hiztegiaren burujabetza hitza nahiago, bestea baino. Burujabetzak, kontzeptuz, ez du aparteko azalpenik behar, oso ulergarria baita hitzaren esanahia. Independentziak, ostera, exigentzia handiagoa dauka, are gehiago Europako eredu nahasi eta konplexuan. Hortaz, gaur eta hemen, ulerterrazagoak diren hitz globalen aldekoa naiz ni, eta burujabetza lehenetsi. Gainera, denbora ematen digu horrek Euskal Estatuaren aldeko Estatua ezaugarritzen joateko, Estatua sortzeko prozesua ez baita sarri irudikatzen dugun beste sinple. Zergatik tematu hainbat sektoretan bereganatzen zaila izan daitekeen terminologia erabiltzen?

Politika ulertu eta egiteko modu berriak ari garelara, hiztegia bera eguneratu beharrez ere ari beharko genuke. Kasurako, ez ditugu herritarrak burujabetza prozesura “erakarri” behar, prozesua bera zabaldu behar da jendartean, burujabetzaren beharra konpartituz. Baina horretarako, hiztegiatik haratago, prozesua bideragarria ez ezik gizarte duinerako beharrezana ere izan badela zabaldu behar dugu: bertatik bertara erabaki. Eta horretan pedagogia falta handia sumatzen dut oraindik ere; sentitu legez esaten dut. Agian, abertzaletasuna bera, bere adiera klasikoan behintzat, oztopo bihurtu da gehiengo batek burujabetza sozialaren alde egiteko.

Bada esanguratsua gertatzen zaidana. Azken sasoiaren hurbileko prentsan hainbat gogoeta irakurri ditut prozesu subiranistaren gainean. Eta onartu egiten dut, freskotasan gehiago sentitu dut “politiko” ez diren testuetan “politiko” diren baten baino. Adierazgarria zait, idazkera pentsaeraren ondorioa delako. Burujabetza sozialaren aldeko formazio sozio-politiko global batek freskotasan hori “erakarri”, orain bai egozia aditza, egin beharko luke; eta freskotasan sortzaileek gehiago inplikatu beharko lukete politikaren politikan, ikuspegi berriak eta berriak sendotze aldera. Nire ustez, burujabetza sozialaren inguruan eman behar da eztabaidarik handiena etorkizun hurbilean. ■

## Liburuak eta borrak



Oihana Etxebarrieta  
KAZETARIA  
@BetaurrekoMorea

**A**ngela Davisi gaztelaniara itzuli dioten azken liburuaren bila joan naiz liburute-gira: *Abolizioaren demokrazia. Kartzelak, arrazakeria eta indarkeria*. Bi ale besterik ez ditu EAeko liburutegiaren sareak, eta oraingoz bietako bat bera ere ez eskuragarri. Apaletatik buelta bat ematera joan naiz eta haur literaturako sailan amaitu dut. Liburu artean barrezka zeuden ume batzuk isiltzera etorri da gizon bat. Buelta eman dut, harritu bainau gaztelaniaz haur txiki horiei hain modu bortitzean zuzendu izana. Eta hara non, segurtasun enpresa pribatu bateko gizon batekin egin dut topo, borra eta eskuburdinak soinean dituela.

“Zer egiten duzu zuk horrelako leku batean?” galdetuko nioke gustura asko (ligatzeko inolako intentziorik gabe noski).

Liburutegi batean horrelako irudi batekin topo egin dudan lehen aldia izanik, haluzinatuta kalera ateratzen naiz. Ezin izan dut paradoxa burutik kendu. Buru askeen sorleku eta bultzatzaile beharko lukeen espazioan, “segurtasuna, zuzentasuna eta isiltasuna” bultzatzen dituen sinboloa sartu dute. Kartzeletan bakarrik ez, gure egunerokotasunaren espazio intimoetara ino sartu zaigu segurtasun-kontrol gizartea. Abolizioaren demokraziaz urgentziaz hitz egiteko garaia da. ■

## Kutsatzaile hormonalak

# BERANDU ETA HERREN DATOR EUROPATIK BABESA

90eko hamarkadaren hasieratik dakigu inguratzen gaituzten konposatu kimiko sintetikoetako asko kutsatzaile hormonalak direla. Gure sistema endokrinoa engainatu eta gaitz ugari eragiten dute: ugalketari lotutako nahasmenak, minbiziak, diabetesa... Zientzialariek aspaldi alarma jo zuten arren, halako substantzietarako behar bezalako araudirik gabe gaude oraindik Europar Batasunean; ez luzerako, zorionez. Ondoko lerrootan kontatuko dizuegu nola lortu duten produktu kimikoen eta pestiziden lobbyek erregulazioa atzeratzea. Eta agian, itxuragabetzea ere bai.



Unai Brea  
@unaibrea


Azken urteotan gero eta zientzialari gehiagok publikoki agertutako kezka da: gizakiok –batez ere Bigarren Mundu Gerraz geroztik– sortu eta naturara jaulki ditugun 100.000 inguru konposatu kimikoekiko elkarrekintzaren ondorio zehatzak ez ditugu oraindik behar bezain ondo ezagutzen, baina gaitz as-

koren gorakadarekin zerikusi zuzena dutela pentsatzeko oso arrazoi sendoak daude.

90eko hamarkadaren hasieratik ezagun da konposatu horietako batzuek animalion sistema endokrinoekin elkarrekintza zuzena dutela. Izen ugari daukate, denak ere taberna edo bazka-

losteko solasaldirako desegoki askoak: disruptore endokrino, kutsatzaile edo nahasle hormonal...

“Ez dugu aurkitu oraindik jendartearen erraz zabaltzeko moduko izendapenik”, azaldu digu Kistiñe Garcia ingurumen-zientzialari bilbotarrak. Ekologistak Martxaneko kidea da Garcia, eta elkarte



horrek elikatutako *Libres de contaminants hormonales* (Kutsatzaile hormonalez libre) bloga egitea du eguneroko zeregina. Irakurleei bezala geure buruei lana errazteko aholku bat eman digu: ingelesezko EDC siglak baliatzea disruptore endokrinoez jarduteko.

### “Itxura-egile” endokrinoak

Garcia azaldu digunez, kutsatzaile hormonal guztiek ez dute modu berean jokatzen, baina funtsean esan daiteke sistema endokrinoari “iruzur” egiten diotela: hormonak imitatzen dituzte, eta gorputza ez da gai batzuk eta besteak bereizteko. Hala, EDCek disfunczioak eragin ditzakete hormonek erregulatutako prozesu guztietan, normalean epe luze baten ostean ondorioa izango dutenak. Disruptore endokrinoen arriskuei buruzko ehunka ikerlan argitaratu dira, zientzialarien arreta bereganatu zutenetik igarotako mende laurdenean.

EDCekin lotura duten gaitzen zerrenda oparoa da: ugalkortasuna gutxitzea, nahigabeko abortuak, jaioberriengan malformazioak, zenbait minbizi mota, obesitatea, alergiak, diabetesa, autismoa... Eritasun horien eragina asko handitu da azken hamarkadetan –ikus diabetesari buruzko koadroa errepor-tajearen azken orrialdean–, eta ikerlari askok ohartarazi dute horrek lotura zuzena duela eguneroko erabiltzen ditugun produktu askotan kutsatzaile hormonalak egotearekin. Gaur egun, ezinez-kotzat jo daiteke haiekiko inolako har-tu-emanik gabe bizitzea. Are gehiago: gutako bakoitzak dozenaka EDC du gorputzean.

### Nonahi daude

2004an, WWF elkarteak Detox izeneko kanpaina abiatu zuen, europarron odo-lean zer nolako substantziak zebiltzan neurtzeko. Pertsona esanguratsuak aukeratu zituzten analisietarako, tartean hamalau ministro. Eta esanguratsuak izan ziren emaitzak ere: bilatutako 103 konposatuetatik, 76 atzeman zituzten. Batez beste, pertsonako 35.

Aurkitutako konposatuak mota askotakoak ziren: nekazaritzako pestizidak –elikagaien bitartez hartzen ditugunak–, gailu elektrikoetan isolatzaile modura erabiltzen diren poliklorobifeniloak, plastikoei biguntasuna ematen dieten ftalatoak, garbiketa-produktuei usain jakina emateko osagai sintetikoak, zartaginetan-eta jartzen diren fluordun substantziak, metal astunak, arropari eranstean zaizkien zenbait konposatu, kosmetikoetako osagaiak...

Azterketa haren emaitzak aski aipatuak izan ziren, baina akaso ez behar beste. WWFren helburua zen Europar Batasunak legedia gogortzea kontsumitzaileok egunero esku artean izaten ditugun produktu kimiko sintetikoak da-

» Ezinezkoa da kutsatzaile hormonalekiko hartu-emanik gabe bizitzea; gutako bakoitzak dozenaka du gorputzean

gokienez. Eta bai, araudia finkatzeko prozesua aspaldi abiarazi zuen Europak –WWFk Detox kanpaina abiatu baino urte batzuk lehenago, izatez–, baina industria kimikoaren lobbyak izugarri atzeratzea lortu du prozesu hori, eta are okerrago, emaitza urardotzeko arriskua dago. Horren berri xehe-xehe eman zuen Stéphane Horel kazetari frantziarrak 2015eko maiatzean argitaratutako *A toxic affair* (Afera toxiko bat) txostenean.

### Of zialki, susmagarriak baino ez

Arestian esan dugunez, 90eko hamarkadaren hasieratik dugu EDCen arriskuen berri. Eta hamarkada hura amaitu baino lehenago, 1999an, Europar Batasunak substantzia horiek ikertzeko eta arautzeko lehenbiziko estrategia onartu zuen. Ondorengo urteetan egindako garapenaren ondorioz, kutsatzaile hormonalen aurkako neurriak hartu beharra jasota dago gutxienez hiru araudi europarretan, eta hala egiteko epeak ere zehaztuta daude. Baina zoritxarrez, epeak agortu dira eta substantzia jakinen gaineko erregulazioa finkatzeko dago oraindik.

Kasurik onenean, aurtengo ekainean izango dugu prest aspaldi eginda behar zuena: EDCak izateko susmagarriak diren substantziak erregulatzeko irizpide sorta. Esan behar baita gaur-gaurkoz, ofizialki, susmagarriak baizik ez ditugula, araudi faltaren erruz hain zuzen. Europar Batasunak darabilen zerrendan 500 konposatu inguru ageri dira, baina kopurua 1.500eraino igo daiteke, iturriaren arabera.





Edozein kontsumo-artikulu motatan aurkitu ditzakezu kutsatzaile hormonalak: kosmetika produktuak, margoak, jantziak (duela hilabete batzuk zeresana eman zuen mendiko arropa saltzen duten zenbait markaz Greenpeacek egindako txostenak), plastikozko ontziak... Ezaguna da A bisfenolaren kasua: Europar Batasunean debekatuta dago biberioiak egiteko erabiltzea 2011tik. Orain, Frantziak bultzatu nahi du debekua edozein ontzi motatara zabaltzea.

### EDCak identif katzeko lan gaitza

Stéphane Horelek *A toxic affair*-en azalzen duen bezala, 2009an Europako Batzordeak Ingurumen Zuzendaritzaren gain utzi zuen EDCak arautzeko zeregina. Zuzendaritzak, beste ezer baino lehen, txosten bat eskatu zuen, kutsatzaile endokrinoei buruz zientziak zekien guztia laburbiltzeko xedez. 2012an burutu zen txosten hori, Andreas Kortenkamp ikerlariaren gidaritzapean.

Kortenkampen lanaren ondorio nagusietako bat izan zen erronka eskerga izango zela EDCak erregulatzea, ez baitago haiek detektatzeko metodologia unibertsal bat. Ehunka substantziaz ari gara, berez oso konplexua den sistema endokrinoari modu asko eta kasu batzuetan ezezagunetan eragin diezaioketenak. Baina kutsatzaile endokrinoak zeintzuk diren zehatz-mehatz identifikatu ahal izatea funtsezkoa da. Horren zergatia ondo ulertzeko, komeni da azaltzea nola arautu ohi diren substantzia kimikoak Europar Batasunean.

### Badago tarte segururik?

Konposatu kimiko baten erregulazioa egiten denean, suposatu egiten da maila batetik behera ez dela arriskutsua; hau da, badagoela segurtasunezko tarte bat, substantziarekiko hartu-emanak kalterik ez dakarren tartea. Hala ere, onartu egiten da substantzia batzuek ez dutela segurtasun-tarterik. EDCei buruzko eztabaidaren muina da, hain zuzen, segurtasun-tarterik gabeko substantziaz hartu behar diren.

*A toxic affair*-en irakur daitekeenez, Kortenkamp txostenak ondorioztatu zuen momentuz behintzat kutsatzaile

» Kutsatzaile hormonalak “potentzia” irizpidearen arabera sailkatzea nahi du industriak, hau da, ahalmen handienekoak baino ez debekatzea

hormonalak segurtasun-mugarik gabekotzat jo behar direla, EBn ez baitago gaur-gaurkoz balizko muga hori detektatzeko behar bezalako bitartekorik. Kistiñe Garciaren esanetan, erabat logikoa litzateke EDCak segurtasun-tarterik gabeko substantzia modura sailkatzea, sistema endokrinoaren funtzionamenduagatik hain zuzen: “Hormonek oso eragin handia izan dezakete oso kopuru txikietan eta EDCek berdin jokatzten dute, hormonon imitatzaileak diren heinean”.

Kutsatzaile hormonalek ez dute betetzen toxikologia klasikoak darabilen urrezko arauetako bat: Parazelsok XVI. mendearen esandako “dosiak egiten du pozoia” ospetsua. Besteak beste, industria kimikoaren interesei primeran egokitzeak bihurtu du araua urrezko, dena esatera. Kutsatzaile hormonalek ez dute printzipio hori betetzen, Garciak azaldu digunez. Baliteke substantzia batek oso dosi txikietan izatea eraginik handiena, eta ez hainbestekoa dosi altuagoetan.

Horregatik, 2009tik indarrean da goen plagizidei buruzko europar arau-

diak substantzia arriskutsutzat jotzen ditu EDCak. Haren arabera, konposatu bat kutsatzaile hormonalak dela ebazitakoan besterik gabe debekatu egin beharko litzateke, haren kopuru onargarriarik ba ote dagoen planteatu ere gabe. Jakina, beste ezeren aurretik kutsatzaile hormonalak identifikatu behar dira; arauak dio Europako Batzordeak, beranduenez, 2013ko abenduaren 14rako garatu behar zituela horretarako irizpide zientifikoak. Kortenkamp txostenak galdegiten zuena, azken batean.

Haatik, urte bi eta erdi geroago bete gabe dago agindu hori, nola plagiziden alorrean –munduan erabiltzen diren %5 inguru disruptore endokrinoak izan daitezkeela kalkulatzeko da, Kistiñe Garciaren esanetan– hala gainerakoetan.

### Industriaren kontraerasoa

Espero zitekeenez, industria kimikoaren eta pestiziden lobbyari ez zitzaion gustatu Kortenkamp txostena, ez eta, oro har, Europako Batzordeko Ingurumen Zuzendaritzak EDCei buruz zituen irizpideak. Ekoizten zituzten produktuetako asko debekatuak izateko arriskua sumatu zuten, eta gogor ekin zioten Kortenkampen lana kritikatzeari, BASF eta Bayer enpresak buruz. Ez ziren bakarrik aritu ordea, bidelagun izan baitzituzten Europako Batzordeko beste sail batzuk eta EBko zenbait estatu kide.

2011n, artean Kortenkamp txostena argitara eman gabe zegoela, Britainia Handiak eta Alemaniak disruptoreei buruzko beren jarrera agertu zuten agiri batean. Gobernu biek EDCetarako proposatutako erregulazio-sistema, funtsean, “potentzia” irizpidean zetzan.



Labur esanda: ahalmen handieneko kutsatzaile hormonalak baizik ez debekaztea. Potentzia irizpidearen arabera sailkapena oinarritzeko eskari bihurtu zen produktu kimikoen eta plagiziden industriarentzat; Ingurumen Zuzendaritzako adituek 2013an baztertu zuten arren, gerora berriz itzuli zen Europako Batzordearen agendara.

“Gobernuz kanpoko erakundeak borrokan ari gara irizpide hori aurten onartuko den EDCen erregulazio-araudian aintzat hartua izan ez dadin”, diosku Kistiñe Garciak. Andreas Kortenkamp berak adierazi zuen, bere izena daraman txostenean, potentzia irizpidea besterik gabe erabiltzeko ez duela justifikazio handirik zientziaren ikuspuntutik.

Hain zuzen ere, konpainia handiek ondo baino hobeto dakite eztabaida zientziaren borrokalekura eramaten euren interes ekonomikoan arriskuan ikusten dituztenean, eta kutsatzaile hormonalen kasua ez da bestelakoa izan. Kortenkamp txostenak hainbat eraso jasan zituen eremu akademikoan, argitara eman eta ia berehala. Haren metodologia gogor kritikatu zuten zenbait artikuluzientifikotan; egileak industriarekin lotura zuten ikerlariak ziren, eta kasu batean, Britainia Handiko Gobernuak bera izan zen Ingurumen Zuzendaritzaren enkarguz egindako lana desegokitzat jo zuena.

Hori gutxi balitz, Zuzendaritzari etxe barruan agertu zitzaion beste arerio bat: 2012ko urrian, beste zuzendaritza batek, Osasun eta Kontsumitzaileenak, Elikagaien Segurtasunerako Europako Agentziari (EFSA) eskatu zion EDCEi lotutako arriskuei buruzko azterketa egin zezan. Eskaria esanguratsua zen, EFSAren aurrekariak zirela eta. Askok espero zuten hark emango zuen iritziak ez zuela bat egingo Andreas Kortenkampen lantaldeak defendatutako irizpideekin, eta ez zebiltzan oker; 2013ko martxoan argitaratu zen, eta orobat industriak emandako argudioetarantz lerratzen zen. Gerora jakin zenez, EFSA gaia aztertu zuen lantaldeko kideen erdiak lotura zituzten pestiziden lobbyekin.

### Hurrengo urratsa: inpaktu-ebaluazioa eskatzea

Aurkako kanpaina eta guzti, 2013ko udaberrian, araudia zehazteko urtebete baino gutxiagoren faltan beraz, Ingu-



## DIABETESA ETA KUTSATZAILE ENDOKRINOAK

Apirilaren 7an, Osasunaren Munduko Egunean, datu beldurgarria zabaldu zuen Osasunaren Munduko Erakundeak (OME): 422 milioi diabetes gaixo dago munduan –biztanleria osoaren %8,5–; 1980ko kopurua halako lau. Eta datozen hogeitazazpi urteetan zifra bikoiztuko dela uste da. Odoleko glukosa kantitate handiak 3,7 milioi heriotzaren kasua izan ziren 2012an; horietatik 1,5 milioi zuzenean diabetesak eragindakoak.

Gaitzaren zabalkunde izugarri hori loditasunaren gorakadari egotzi dio OMEk, biztanleria zahartzearekin batera. Baina Kistiñe Garcia Ekologistak Martxaneko kidearen ustez, ezin daitezke aipatu gabe utzi diabetesa kutsatzaile hormonalekin lotzen duten gero eta ikerlan ugariagoak. Zehazki, bizitzaren hasieran –eta bereziki umea oraindik jaio gabe dagoenean– zenbait EDCrekiko harremana izateak gerora diabetesa garatzea erraztu lezake. Bestalde, kutsatzaile hormonalak izan litezke loditasunaren gorakadaren zergatietako bat. 2014an 30 zientzialarik sinatutako Parmako Adierazpenaren arabera, substantzia mota horiek zerikusia dute loditasuna, diabetesa eta beste nahasmendu metaboliko batzuekin, batez ere haiekiko harremana haurtzaroan gertatzen denean. Gero eta mediku eta zientzialari gehiagok esaten du harreman hori ahal den heinean gutxitzea prebentzio politiken parte izan behar dela.

rumen Zuzendaritza tinko zegoen bere jarreran. Alde zeukan, gainera, Nazio Batuen Erakundeak argitaratu berri zuen txostena: EDCen kasuan segurtasun-mugarik ez dagoela berretsi zuen NBEk.

Orduan, korporazioek beste urrats egin zuten: inpaktu-ebaluazioa eskatu. Mota horretako ebaluazioek denbora luzea behar izaten dute, eta haien xedea da Europako Batzordeak proposatutako politika baten ondorio positiboak eta negatiboak aurreikustea. Ondorio ekonomikoak barne. Eskaria egiteaz batera, industria kimikoaren lobbyak hainbat txosten aurkeztu zituen, EDCen balizko debeku batek nolako kalte ekonomikoak ekarriko lituzkeen agertuz.

Stéphane Horelen esanetan, inpaktu-ebaluazioa eskatuz industriak denbora irabazteko asmoa zuen. Aldi berean, garai hartan hastear zeduten TTIP merkataritza askeko hitzarmenaren negoziazioak erabiltzeko aukera ez zuen alferrik galdu nahi izan. Bide horretatik abiatuta, europar enpresa-jabeek Atlantikoaren bestaldekoen laguntza jaso zuten: produktu kimikoen eta pestiziden esparruetako estatubatuar konpainia handienek EBko agintariei jakinarazi zieten “kezka handia zutela” EDCEi buruzko europar irizpideak zirela eta. Haien iritziz, AEBetako hain bestelako irizpideak ezartzeak oztopoak jarriko zizkion merkataritzari, “hain zuzen ere EBk eta AEBek negoziatu nahi duten akordioaren bidez ezabatu nahi diren oztopoak”.

2013 erdialdean, azkenik, Europako Batzordeak ebaluazio-inpaktua egitea onartu zuen; pestizidei buruzko araudiak ezarritako epeak betetzea ezinezko bihurtu zituen horrek. Denbora irabazita, lobbyek berriz ekin zitoten borrokari zientziaren eremuan, eta azkenik arrakasta izan zuten: 2014an, EDCak identifikatzeko Ingurumen Zuzendaritzak proposatutako bide-orriak lehenetsuna galdu eta, lehenago esan dugun bezala, industriak defendatutako potentzia irizpidea agertu zen ostera ere mahai gainera. Dena biribiltzeko, handik gutxira Jean-Claude Junckerren agintepeko Europako Batzorde berria eratu zen. Komisario berriak izendatu eta sail baikoitzaren zereginak birdefinitu ziren. Harrezkerotik, EDCak arautzeko irizpideak dagokienez gidaritza ez dago Ingu-

rumen Zuzendaritzaren esku; industria-  
ren nahietara lerratuago dagoen Osasun  
eta Kontsumitzaileen Zuzendaritzak du  
orain ohorea.

### Azken txanpa, ustez

2013an erabakita behar zuten EDCak  
identifikatzeko irizpiderik gabe iritsi  
gara 2016ko udaberrira, honenbestez.  
*A toxic affair* argitaratu zenetik gauza  
bakarra aldatu da, baina ez munta txi-  
kikoa: 2014an, Suediak Europako Bat-  
zordearen aurkako salaketa jarri zuen  
Europako Justizia Auzitegian EDCen  
araudiaren aferan “utzikeriaz” jokat-  
zeagatik, eta 2015eko urtarrilean, us-  
tekabeen, bai Parlamentuak bai Eu-  
ropako Kontseiluak salaketa horrekin  
bat egitea erabaki zuten. Iazko aben-  
duan, arrazoa eman zien Auzitegiak.  
Beraz, irizpide ekonomikoak albora  
utzi eta irizpide zientifiko soilen ara-  
berako auzidua sortu beharko du EBk  
kutsatzaile hormonaletarako, epaile  
batek hala aginduta. Ikusteko dago  
hori nahikoa izango ote den europar-  
rontzat behar bezalako babesera irai-  
tzen hasteko. ■

## DANIMARKAKO KRISPETEN KASUA

2015eko maiatzean, Danimarkako  
Coop Danmark supermerkatu  
-kateak iragarri zuen ez zuela  
gehiago salduko mikrouhin  
-labean berotzeko krispeta  
poltsarik bere dendetan.  
Horren arrazoa zen enpre-  
sako arduradunek ez zutela  
aurkitu kutsatzaile hormonalik  
gabeko poltsarik merkatuan.



Krispeta-poltsek f uordun substan-  
tziak eduki ohi dituzte. Substantzia ho-  
rirei esker ontziek mikrouhin-labeetako  
beroa jasan dezakete, eta ohikoak dira  
temperatura altuen pean egoten diren  
artikuluetan. Krispeta-poltsetan ez ezik,  
zartaginetan, pizza kutxetan... aurkituko  
dituzu. Ikerketa askok erakutsi dute kus-  
tsatzaile hormonalak direla eta besteak  
beste nahigabeko abortuak eta ugalkor-  
tasun galera eragin dezaketela.

Artikulu askoren kasuan kutsatzaile-  
rik gabeko alternatibak dauden arren,  
Coop Danmark ez zen gai izan EDCrik

gabeko krispeta-poltsarik aurkitzeko;  
hortaz, produktua bere dende-  
tatik kentzea erabaki zuen, be-  
zeroen osasunaren onerako.  
Izan ere, supermerkatu-ka-  
teak kontsumitzaileak ba-  
besteko estrategia abiarazi  
du: zientzia ikerlanen arabera  
arriskutsuak izan daitezkeen  
zenbait substantzia identifikatu  
ditu, eta 2017rako erabat kenduko  
ditu apaletatik. “Jende askok uste du le-  
gezkoa dena segurua dela, baina ez du  
beti zertan hala izan”, adierazi zuen en-  
presak, krispetarik ez saltzeko neurriaren  
berri eman zuenean, “zientzialariek kezka  
agertzen dutenetik araudia ezartzen den  
arte bost edo hamar urte igaro daitezke”.  
Azkenean, Coop Danmark-eko dende-  
tan hilabete gutxi batzuk baino ez zuen  
iraun krispeta-poltsek utzitako hutsunea,  
Liven izeneko enpresa katalan batek kus-  
tsatzaile hormonalik gabeko poltsak sor-  
tu zituela iragarri baitzuen urrian.

Europa erakusten digutena baino  
askoz ere anitzagoa eta ederragoa da

EUROPAKO HERRIEN MAPA EUSKARAZ

15€

bidalketa barne  
Euskal Herrian

Mundua ulertzeko  
beste begirada bat,  
ARGIAren eskutik.

 ARGIA

Egin ezazu eskaera:



© 943 371 545 | www.argia.eus/denda | denda@argia.eus



Neurria: 84,1 x 59,4 cm


Etxe, eskola eta elkarteetarako opari aproposa

Egunero lan berriak sareratzen ditugu  
1.800 bideo baino gehiago ikusgai




**Erreportajeak**

Bost minutuko bideoak. Gai mamitsuak era argian azalduta.



**Elkarrizketak**

Zer esana eta pentsatua ematen duten pertsonekin solasean.





**Web Telebistak**

Euskal Herrian eta euskaraz egiten diren web telebista guztien biltokia.



**Ekitaldiak**

Ekitaldi interesgarriak klik batean, baita nazioartean emandakoak ere.



**Film laburrak**

Erabiltzaileek sarean zintzilikatutako euskarazko film laburren hautaketa.




**Dokumentalak**

Dokumental berri bat astero. Euskaraz edo euskarazko azpiztituluekin.



**Solasaldiak**

Gai zehatzei buruzko eztabaidak, hitzaldiak eta mahai-inguruak, gogoetarako material gisa.



**Bideo herrikoiak**

Euskal Herrian jendearen ekimenez egindako bideoen biltokia.

# HAZIAK

## HARREMAN OSASUNTSUAK EREITEN

Botere erlazioek kutsatzen dituzte gure eguneroko harremanak. Haur eta gazteen artean harreman desorekatuok iraultzea helburu, Haziak proiektua abiatu dute Oiartzungo ikastolan: ikasleen barruak mugitzeko, denetariko sentimenduak azaleratzeko eta elkarren arteko hartu-emanen eraginaz kontzientzia hartzeko balio izan du.



Mikel Garcia Idiakez  
@mikelgi

Lidergoaren gaiak protagonismo handia hartu du Koro Uria irakaslearen gelan; 11-12 urte dituzte bere ikasleek. “Liderrek nahi gabe egiten ditugu” bota du batek, eta hortik abiatu dute eztabaida. Lider izatearen alde onak nabarmendu dituzte gazteek: “Denek kasu egiten diote, famatua da, lagun asko ditu, ez da bakarrik sentitzen, berak egin nahi duena egiten dute besteek...”. Eta baita txarrak ere: “Bakarrik egon nahi duenean kosta egiten zaio, beti berak hartu behar du erabakia, erabakitzen duena kopiatu egiten diote gainerakoek...”. Tentsio momentu handiak izan dira, gelako liderrengana joan dira begirada guztiak, eta hasierako isiltasun orokorra gainditzea lortu dutenean, barruak askatu dituzte, hitza hartzeko ohitura gutxiago dutenak ere mintzatu dira. Egoera ugari azalera-tu dituzte, liderrentzako mezuak egon dira, eta haiekin ados egon ez arren norbere erabakia adierazteko ausardiaz eta ezetz esaten jakiteaz aritu dira. Hala xe kontatu digu Koro Uriak. “Gaiak hitz egin dugu, eta hurrengo aldia, adibidez arratsaldeko plana erabaki behar dutenean, hau guztia barneratua izango dute behintzat”.

Haziak proiektuaren baitako esperientzietako bat da aurrekoa, Oiartzungo Haurtzaro ikastolan martxan jarria.

Ikastola horretako guraso eta proiektuaren bultzatzaile dira Nora Barroso eta Nekane Martiarena. Beharretik sortutako proiektua dela diote, gizartearen ez diogulako nahikoa denbora eskaintzen harremanei eta elkarbizitzari. “Botere harremana ikuspegi poliedriko batetik ulertzen dugu, forma ezberdinak hartzen dituelako: izan daiteke bullyinga, izan daiteke naturarekiko dugu erlazioa, gizonak emakumeengana indarrez zuzentzea...”. Harreman desorekatuoz jabetzea da horiek iraultzeko lehen urratsa. “Haziak proiektuan ez dugu inor epaitzen, ez dugu esaten bakoitzak zer eta nola egin behar duen, ateak irekitzen ditugu, bakoitzak erabaki dezan: gelditu, pausatu, barrura begiratu, eta gero begiak ireki, barrutik begiratu ingurua, inguruarekin eta inguruko pertsona eta entitateekin ditugun harremanak, baita norbere buruarekin ere (sarri zama handiak jartzen dizkiogulako geure buruari), barrua eta kanpoa elkar elikatuz. Haserre gaudenean adibidez dena apurtzen edo besteei min ematen hasi ordez, segundo batez barrura begiratu eta benetan haserre zergatik gauden begiratzea ona da. Hortik aurrera, norberak ikusiko du zer behar duen, nola gestionatuko dituen bere sentimenduak”, azaldu du Barrosok.

### Norbanakotik taldera, ipuina eta komikia lagun

Lehen Hezkuntzako 2. mailan (7-8 urteko haurrekin) eta Lehen Hezkuntzako 5 eta 6. mailan (10-12 urtekoekin) jorratu dute Haziak, urte bereziak direlako: LH2n, bost urte eman dituzte haurrek elkarrekin, eta rolak markatuta izan ohi dituzte ordurako. LH5-6n, aurreko urteko gelak nahastu eta berriak sortzen dituzte, egoerak eta harremanak aldatuz. LH2n “Enpatia” izan da landutako gaia, eta LH5-6n, “Norbanakotik talde funtzionamendura edo bizitzen ikastea”.

Txikienek, enpatia gaiari heltzeko, egoera jakin bat sufritzen ari den *Igel marroitxo* ipuina erabili dute, eta 10-12 urtekoek, rol markatuak dituzten eta gertaera bati aurre egin beharko dioten lagunei buruzko *BarruKLIK* komikia. Material hori sortzeko, irakasleek ikuspegia funtsezkoa izan da, behar errealestatik abiatzeko, egunerokoan ikastolan bizi eta ikusten duten horretatik. Sor-kuntza prozesuan, beste hainbat bide-lagunen iritzia ere garrantzitsua izan da –adibide bat jartzearen, Antiju Morrik herriko talde feministak materiala gainbegiratu du, genero ikuspegitik– eta jakina, haurren beraien parte-hartzean oinarritu dute materiala: egin ahala, gaztetzoei galdetzen eta aholkuak eska-



Barne mundua azaleratzeko, hitzaz gain lau askebide izan dituzte aukeran ikasleek: ipuina (Pello Añorga gidari), marrazkia eta irudia (Idurre Ugalde buru), argazkian ageri den gorputz espresio tailerra (Odei Astibia zuzendua) eta rap-a (Odei Barrosoren eskutik).

tzen joan dira, haien ikuspuntua txertatuz. Haziak egitasmoaren webgunerako ere, helduei bururatu ez zitzairen ekarpen ugari egin dituzte haurrek: txat-a, iritzia emateko leku baten beharra, hasieratik atal guztiak batera ikusi ahal izatea... Eta batik batitsuak diren haurrengan pentsatuz, ipuin eta komikiaren audioak egin dituzte, materiala ahalik eta zentzumen gehienetatik iritsi dadin.

Saio bakoitzaren aurretik, hutsetik hasteko, arnasketa, erritmo, musika eta koloreekin jokatzeko duten *Barrurako bidean* bideo eta audio laburrak ikusi/entzun dituzte, erlaxatuta ekiteko. Bakar-

ka, taldeka eta orokorra (ikasgela osoa elkarrekin) izan da lanketa. Lehenik, ipuinaren edo komikiaren hasiera irakurri eta nahieran adierazi dute iradokitakoa (marrazki bidez, idatziz, gogoeta pertsonala eginez...). “Bakarkako une hori oso garrantzitsua da, sarri zuzenean taldeka heltzen diegulako gaiei, eta batzuei gehiago kostatzen zaie irekitzea, betikoek hartzen dute gain. Gero taldera eramateko gaitasuna izango dute edo ez, baina gutxienez aurretik nork bere tarte izan dezala”, azpimarratu du Martiarenak. Ipuinaren hasieraz gain, bukaera ere irakurri dute ondoren, eta ausaz osa-

tutako taldeetan, elkarrekin joan dira bidea adosten: “Triste nago eta zoriontsu izan nahi dut, horretarako bidea egingo dut, bakarka pentsatuz eta taldean eztabaidatuz, nahiz eta beharbada ideala ez lortu”. Materiala irekia da eta bidean ezustekoak daude, istorioek interpretazio bat baino gehiago izan ditzakete eta bide ezberdinak egiteko aukera dago, baita ipuin edo komikia nahieran eta nahi beste osatzeko ere –orri edo bineta berriak txertatuz–. Talde dinamiketarako lagungarri, materialarekin batera galdera zerrenda prestatu dute ekimenaren sortzaileek.

» **KORO URIA, IRAKASLEA:**

“Tentsio uneak izan dira, eta hasierako isiltasun orokorra gaintzea lortu dutenean, barruak askatu dituzte, hitza hartzeko ohitura gutxiago dutenak ere mintzatu dira. Egoera ugari azaleratu dituzte”

» **N. MARTIARENA, GURASOA:**

“Aurretik bakarka nork bere tarte izatea garrantzitsua da, sarri zuzenean taldeka heltzen diegulako gaiei, eta batzuei gehiago kostatzen zaie irekitzea, betikoek hartzen dute gain”

» **NORA BARROSO, GURASOA:**

“Beste herri eta eskoletan errealitatea bestelakoa izango da, baina hona guk landutako gai eta materialak. Elkar elikatu gaitzen, ikuspuntu anitzak jaso eta sare aberatsa sor dezagun”



DANI BLANCO

Proiektuko lanketa guztiak barrutik hasi eta kanpora joaten dira, berriro ere barrurako bidea egiteko. “Barrukoa eta ingurukoa errespetatzean dago gakoa eta oreka hori mantentzen saiatzen gara. Muinean, barne ahalduntze prozesua dago”, diote ekimenaren sortzaileek. Eskuineko argazkian, “Futbolariak eta printzesak” antzezlan.

### Askebideak, etxeko lanketa eta herri osorako ekimena

Hitzaz gain, bestelako adierazpideak ere bideratu dituzte, “haur bakoitzak bere barne mundua azalertzeko”. Ikasleek lau askebide izan dituzte aukeran: ipuina (Pello Añorga idazle eta ipuin-kontalaria gidari), marrazkia eta irudia (Idurre Ugalde hezkuntza sortzailean aditua buru), gorputz espresioa (Odei Astibia perkusionistak zuzendua) eta rap-a (Odei Barroso raperoaren eskutik). “Rapa hautatu dutenek, esaterako, ‘nik sufritzen dut’ diote konposatu duten kantuan, sentitzen dutena argi adierazi dute musikaren bitartez”, kontatu digute.

Etxean ere landu dute proiektua. 7-8 urteko haurren kasuan, galtzerdi batekin ipuineko igela egin eta etxera eraman dute. Sufritzen ari den igelarekin identifikatzen denak haren bidez erra-

zago adierazi dezake gertatzen zaiona; identifikatzen ez denak berriz, enpatia garatu dezake haren azalean jarrita. 10-12 urteko ikasleek berriz, komikia etxera eraman eta gurasoekin irakurri eta eztabaidatu dute. Galdera batzuk eraman dituzte –haurrek beraiek gelan adostuak batetik, proiektuaren sortzaileek proposatuak bestetik– eta gurasoek seme-alabekin erantzun behar izan dituzte, nortasunari buruzko itaunak, rolen ingurukoak, txikiak zirenean bizitako egoerez... “Hemen ere, askatzea izan da helburua”, dio Nora Barrosok.

Azkenik, kalera atera da egitasmoa, sozializatu eta beste ikastetxe eta adin tarteko haurrei eskaini zaie, herri guztiari oro har. Hezkuntza ez formala, zehazki Oiartzungo ludoteka, bitartekari inportantea izan da zeregin horretan. Besteak beste, ipuina eta komikia herrian barna banatuko dira (anbula-

torioan, liburutegian, tabernetan...), askebideetan landutakoa erakutsiko da eta *Futbolariak eta printzesak* antzezlan egin da. Gai hauek jorratzeko, jolasa erreminta bat gehiago izan da bai ikastetxean bai ludotekan. Ispilu jolasean, bikoteka batek erabakitakoa besteak errepikatzen du; *Espazio hutsak bete* deiturikoan, norberak gorputzarekin bateko eta besteko formak hartu eta utzitako espazio hutsak bete behar ditu ondokoak, txandaka; trenaren jolasean gidariak egiten duena egin behar dute atzekoek; erlaxatzeko edo kontaktua sustatzeko jolasak ere izan dituzte...

10-12 bat saio/ordu eskaini dizkiote Haziak proiektuari ikastetxean. Orain, ekainera bitarte beste hainbeste behar dute prestaturiko bigarren gaia jorratzeko: harremanen kudeaketa LH2n, eta neska-mutilen arteko harremanak eta harreman ereduak LH5-6n. Dejabu Panpin Laborategiak gidatuko du bigarren txanpa eta dagoeneko hiru fikzio sortu ditu arlo horietan sakontzeko.

### Haserrea, bakardadea, kuadrilla...

“Haziak aitzakia eta bitartekoa izan da pausatu, gai hauei atea gehiago ireki eta denbora eskaintzeko –dio Koro Uria irakasleak–. Batetik, ohiko jardunetik apartekoa izateak misterioa eta jakin-mina sorrarazi du; bestetik, kanpoko egitasmoa izanik, ikasleek ez dute ohiko moduan hartu, ‘badator Koro berriz ere kontu hauekin’, gaiari komikiak,



“Igel marroixoa” eta “BarruKLIK”.



MGI

Haziak proiektuko jendeak, etxeok... ere heldu diotelako. Bestela, ikasleek ghettoak egiten dituzte: irakaslearekin kode hauek ditugu, eta hortik kanpo, bestelakoak. Ghettoa hautsi, ireki, eta eskola, etxea, plaza... dena bat dela konaturatzeko balio izan du ekimenak”.

11-12 urteko ikasleak dituen gela honen ekosistema aztertzeko ere onuragarria izan zaie Haziak. Komiketako pertsonaiak ekarri dituzte taldera: lotsatia, oharkabe pasatzen den ikusezina, elbarria, liderra, denagatik protestatzen duena... Eta lehen aipatu moduan lidergoaz aritzeaz gain, haserrearekin ere protagonismo handia hartu du saioetan: nola haserretzen garen, nola kanporatzen dugun haserrea, hitzak jartzen al dizkiogun, zergatik halakoetan ezberdin jokatzeko dugun gurasoekin edo lagunekin... Gogoeta-

tzeko beste galdera ugari dituzte oraindik zerrendatuta, gatazkez, ezberdin izateaz, bakardadeaz, kuadrillaz, laguntasunaz... Gurasoentzat ere iraultza txiki bat izan dela gaineratu du Uriak: “Guraso asko inplikatu egin dira, beste batzuentzat akulu edo presio txikia izan da proiektua, parte hartzeko. Eta eskolak eta etxeak gunea partekatzea oso inportantea da, ez daitezela bi mundu aparte izan”.

Sentimenduei hitza jarri dietela eta oinarrizko printzipioez mintzatzeko aukera izan dutela nabarmendu digu irakasleak: denok garela inportanteak, irtenbide bat baino gehiago daudela, norberak bere iritzia izateko aukera daukala... “Printzipio horien arabera, bakoitzak kokatuko du bere burua. Ez pentsa, esan ohi diet, zuek sentitzen duzuen hori guztia helduok soluzionatuta

*Ezker-eskuin: Nora Barroso, Nekane Martiarena eta Koro Uria, Hautzaro ikastolan. Haziak aitzakia izan da pausatu, harremanen gaiari ateak gehiago ireki eta denbora eskaintzeko. “Kanpoko egitasmoa izanik, ikasleek ez dute ohiko moduan hartu, ‘badator Koro berriz ere kontu hauekin’”, dio irakasleak.*

dugunik. Bizitzan egiten den bidea da, eta guk esperientzia gehiago dugu, baina oraindik ere ikasten jarraitzen dugu”.

Proiektuaren sustatzaileak prest daude berau beste ikastetxe eta herrietara zabaltzeko. Errealitatea bestelakoa izango da, “baina hemen dituzue esku-ragarri guk landutako gaiak eta horretarako materiala, eta beste gai edo materialik erabiliz gero, pasa guri. Elkar elikatu gaitezenez, ikuspuntu anitzak jaso ditzagun, sare aberatsa sor dezagun”, proposatu du Barrosok.

Erreportajearen zehar aipaturikoez eta konplize izan dituzten irakasle eta gurasoez gain, bidelagun ugari izan ditu egitasmoak. Hala nola, koordinazio orokorraz, zeregin teknologikoez eta sustapenaz arduratu den Iametzta Interaktiboa, Oiartzun Irratia, Lorea Agirre, Eider Eibar, Lur Korta, Jon Martin, Idoia Beratarbide... Proiektu bizia eta irekia da, eta sortzen doazen premien arabera joango dira gehitzen lagun eta eragile berriak, joango da egokitzen ekimena. Uria irakasleak argi du, oinarritzakoa da gaia behin eta berriz mahaigaineratzea: “Askotan landuagatik, beti agertzen dira zirrikitu txikiak, kontrolatzen ez ditugunak. Hurbil eta sentsibilizatuta egon arren, egoera itsusiak ematen dira, oso adi egon behar dugu, eta teknologiak eta sare sozialak ere autopista ezezaguna dira gutako askorentzat. Horregatik dira hain garrantzitsuak Haziak bezalako egitasmoak”. ■

## gure artean euskaraz

Euskara airean dago: egunerokoaren txoko guztietara zabaldu da, eta nahi duguna adierazteko eta lortzeko erabil dezakegu. Egin dezagun hegaz euskararekin eta euskaraz lagunekin, kideekin, neska-mutil berezi horrekin... noranahi heltzeko. Geure modura.

**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

www.bizkaia.eus



# EUSKAL INSTITUZIOA

## EUSKAL KOSTA-ATURRI HIRIGUNEA GOTORLEKU BIHURTU DUTE HERRI ELKARGOAREN AURKAKOEK

Ipar Euskal Herriko lurralde instituzio politikoa eginbidean dago. Martxoaz geroztik, egunez egun, Herri Elkargo bakarraren proposamena bozkatzen ari dira herriko etxeetan. Berau onartzeko, gutxienez, herri guztien erdiek –158tik 79k– alde bozkatu behar dute. Halaber, alde bozkatzen duten herriek biztanleria osoaren erdia –295.993 biztanletik 147.997– ordezkatu behar dute. Euskal Kosta-Aturriko herriko etxeek munta handia dute, beren boz kopuruengatik eta hirigune eraginkorrena delako. Baionako Herriko Etxeak baietz bozkatu du, Bidartek, Miarrizte eta Angeluk ezetz.



**Mikel Asurmendi**

@masurmendi

Euskal instituzioa eratzeko eztabaida urte berrian abiatu zen. Herriko Etxeak Herri Elkargoaren “alde” edo “aurka” bozkatzen ari dira astez aste. Pirinio Atlantikoetako CDCIk (Herriarteko Lankidetzarako Departamendu Batzordea/HLDB) kudeatzen du ekimena. Alabaina, herriko etheen emaitzak bildu ondoren, Pirinio Atlantikoak departamenduko prefetak (Pierre-André Durand) emanen dio segida ekimenari.

Auzapezen eta hautetsien arteko lehen diferentziak urtarrilean agertu ziren. Adibidez, Lukuze herriko Barthelemy Aguerre hautetsi zentristak (Modem) Amikuze eskualdea Biarnorekin elkartzeko proposatu zuen. Proposamena ez zen onartua izan.

### Metropoli hirigune-poloa

Otsailean, Herri Elkargo bakarraren kontrakoek Metropoli hirigune-poloa aurkeztu zuten. Euskal Kosta-Aturri Hirigunea

(EKAH) osatzen duten Baiona, Miarrizte, Angelu, Bokale eta Bidarteko hainbat auzapez Herri Elkargo bakararen aurka dira. 158 herriak erakunde bakar batean (HELEP) bildu ordez, egungo hamar herri elkargoen egiturak egokitzea eta Metropoli bat (MPA) sortzea proposatzen dute. Horien helburua ere, Euskal Herria, Biarritz eta Landak lotzea da. Arestian aipatutako Barthelemy Aguerrek ez du amore eman nahi eta Baigorriko auzapez ohi Jean Baptiste Lambertekin bildu zen Donapaleun: 17 auzapez elkargo bakarraren kontra agertu ziren. Euskal Herria defendatzen omen dute, baina HELEP hori handia eta nahasia dela diote: “Erakundearen izaera neurtzeko xehetasunak eskas ditugu”, argudiatu zuten.

### Batera plataforma

*Batera Karabana* desmartxaren balorazioa egin zuten antolatzaileek martxoaren hasieran. 146 herrietatik pasa

zen karabana. Herritarren harrera ona azpimarratu zuten. Elkargo bakarraren aurkariei “nahasmena” sortu izana leporatu zien.


Martxo erdialdean, Angeluko auzapez Claude Olive Euskal Kosta-Aturri Hiriguneko presidente izendatu zuten. Baionako auzapez Jean-René Etchegarayren kargua hartu zuen. Etchegarayk otsailean aurkeztu zuen dimisioa. Arrazoiak, besteak beste, Miarrizte, Angelu, Bokale eta Bidarteko auzapezek haren kontrako frontea osatu izana.

### Baionako Herriko Etxeak bai

Martxoaren 19an, udaberriaren atarian, 200 hautetsi bildu ziren Kanbon. Elkargoari buruzko xehetasunez eztabaidatu zuten. Proposamenak aitzina egiteko bi baldintza bete behar ditu: biztanleriaren erdia ordezkatzeko duten herriak alde egotea, eta herrien erdiek ere bai. Martxoaren 24an, Baiona hiriburua el-



## HERRI ELKARGO BAKARRAREN BOZKETEN EMAITZAK (HELEP)



Argia.eus-en mapa interaktibo eta eguneratua: herri bakoitzaren biztanle kopurua agertzen duena.

kargo bakarraren alde agertu zen: 43 hautetsietatik 28k alde. Aste batean, 75.000 biztanleek aldeko jarrera eman zuten. Aste horretan ere, tentsioa areagotu zen Euskal Kosta-Aturri Hirigunean. Iparraldeko Hirigune nagusiko herriko etxeak gobernatzen dituzten hamabost hautetsi –aurka dauden auza- pezen gobernuetan daude– elkargo bakarraren alde agertu ziren: “Kostaldea ezin dio Euskal Herriari bizkarra eman”, adierazi zuten.

### Miarritzek ez bozkatu du

Apirilaren 1ean Donibane Lohizunek (14.332 biztanle) bai erran zuten. Bidarrek kontra bozkatu zuten (6.566 biztanle). Espero zen bezala, Miarritzeko 22 hautetsi aurka paratu ziren eta 13 alde. Miarritzeko Herriko Etxearen ezezko jarrera arazoan aurreikusi zen (zenbait udalerrik kontsultazko boza eman zuten orduan), bozketa beraz ez zen us-

tebekoa izan. Elkargo bakarraren aldekoek diotenez, Miarritzeko ezezkoak ez du herri elkargoaren aldeko joera baldintzatuko. Alta bada, ezezkoen aldekoak estrategia gogorra ari dira lantzen. Esaterako, Miarritzen, bozketa sekretupean egin zuten: 22 boz aurka eta hamahiru alde. Aldiz, beste molde bateko adibidea da Baionako bozketan ikusia: Jean-René Etchegaray auzapezak ez zuen parte hartu izan erabakitzeke eztabaidan. Michel Veunac auzapez miarritzarrak ordea, elkargo bakarraren kontrako alegatua egin zuten. Durand prefetak proposatutako proiektua “txarra” dela erran zuten Veunacek. Bera lurralde elkargoaren alde dagoela, erran zuten. Auzapez miarritzarrak prozedura salatu zuten: “Lantzen ari den prozedura Frantziako Gobernuak elkargo bakarrari ezetza emateko ‘jukturia’ da”. Proiektu honentzako herritarren agindurik ez dutela entzun, argudiatu zuten bestalde.

Ildo beretik, François Amigorena Miarritz gobernatzen duen talde nagusiko hautetsiak, proiektuari “demokrazia eskasa” egotzi zion. Beste arrazoi bat ere azaldu zuen “EKAHk ordezkapen arras apala izanen du”. Oro har, EKAHren aurka daudenek Lurralde elkargoaren aldeko kanpainan parte hartu dutela diote. Baina, proiektua lantzeko tailerretan garatzen ari den prozedura ez omen dutela garbi ikusi. Adibidez, zerga sistemaren arazoak izanen direla diote, xehetasun guztiak ez omen dira argiki emanak.

Les Républicains alderdiko Max Brissonen taldeko Maider Arostegi hautetsiak, elkargoaren aldekoak, horrela erantzun zion: “Tailerretan landu diren gaiak aurreikusitako lege aldaketan oinarritzen dira, eta xehetasunez aztertu dira”. Arostegik gezurtatu zuten prefetak eta legeak herri elkargo bakarra gauzatzeari galaraziko dutenik.

## HELEP-ERA KO ESKUMENAK ATELIERRETAN SORTZEN ARI

Herriarteko Lankidetzak Elkargo Publikoak (HELEP) Hautetsien Kontseiluaren eskutik dihardu. Herri Elkargoaren eskumenak lantzen ari dira kontseiluak antolatutako atelierretan. Gobernantza eta fiskaltasuna bideratzeko eskumenak sortzea da korapilatsuena. Hirigintza, Ekonomia, eta Hizkuntza eta Kultura eskumenak dira orainokoa gehien landutakoak. Hauek ere korapilatsuak dira, hala ere.

**Hirigintza-etxebizitza:** Gaur egun hamar dira herri elkargoak. Elkargo bakarra osatuko balitz, egungo legeraren arabera hirigintza-eskumena baliatu lezake. Elkargo horietako batzuek eskumena badute, beste batzuek ez. Ongi bidean, Herriarteko Hirigintza Tokiko Planarekin (HHTP) aplikatu litzateke 2017ko urtarrilaren 1etik aitzina. Herriek eta elkargoek eginbidean dituzten hirigintza planekin segi dezakete: “Arzaoa da 158 herrietarik batek nahiko balu bere hirigintza plana egin, nahitaez, horrek 158 herriak PLUI bakarrean sartzea

behartuko litzukeela”, azaldu du Lurraren Tokiko Erakunde Publikoko Arnaud Portier zuzendariak. Antza, horrek tirabirak ekar litzake. Ordea, prefetak dioenez, eskumena duen ministerioan atal hori aztertzen ari dira balizko arazoak gainditzeko.

**Ekonomia:** NOTRE legearen arabera, ekonomia atalaren eskumen nagusia eskualdeen (Erregioak) esku dago, alta, herriek ere eskumena landu dezakete. Adibidez, oraingo herri elkargoek badute lantegien lur eremua antolatzeko eskubidea. HELEPk atal hori garatu lezake, enpresen diru laguntzetan parte hartuz, besteak beste. Eskumena eskualdearen esku dago, baina HELEPk eskualdeko eta tokiko enpresen arteko hitzarmenetan parte har lezake. Mauleko auzapez Mixel Etxebestek –ekonomia tailerreko ardura-duna– halaxe dio: “Hitzarmena izenpetu daiteke eta lantzen hasi ere bai. Eskumenaren gaitasuna eskualdearen esku izan arren, gu enpresek behar duten dirua

negoziatzeko bitartekariak izan gaitzke”. Etxebesteren hitzetan, eskualdeak erabakia hartu ondoren, komunzki dirua heldu izaten da: “HELEPk eskumena balu, horretaz ardura gintezke”.

**Hizkuntza eta kultura:** HELEPk hizkuntza zerbitzua finka lezake oraingo euskara teknikarien sarean oinarritua, Euskararen Erakunde Publikoa (EEP) ekimenaren parte izan liteke. Erabakiak Herri Elkargoko hautetsien esku lirateke: “Garrantzizkoena da, eskumena sortzen den une beretik horiek argiak izatea. Herri Elkargoak sortuz gero, eskumen horiek garatzeko nahikaria nahikoa izanen dugu”, azaldu du Baionako hautetsi Jean Claude Iriartek. Bestalde, Kultura sailaren desmarta ez da oraindik argitu. Euskal Kultur Erakundeak (EKE) segituko lukeen ala berezko zerbitzua sortuko luketen HELEP berrian, eztabaidagaia da. Estatuak, Eskualdeak eta Departamenduak sostengatzen dute ekonomikoki EKE egun.

Max Brissonnek honela berretsi zuen aldekoen argudioa: “Hazparneko tailerretan planteatutako galdera gehienei arrapostu baikorra eman zitzaion. Elkargoa eraikitzeke jarduera politikoa sakondu behar da. Elkargo bakarra sortu ondoren ere, galdera berriak sortuko ditugu eta horiei erantzun diezagu. Michel Veunacek gehiengo duen gobernu kide Guillaume Barucq ere alde mintzatu zen. Ordea, hautetsi horrek iragan azaroko jarrera aldatu zuen: “Gure taldekook duda anitz genuen. Horregatik abstenitu ginen. Hazparneko tailerretan jaso ditugun arrapostuen ondoren, beste iritzi bat daukagu: “Miarriztekin alde edo kontra egin, hirigune elkargo bakarra sortuko da. Ba ote du zentzurik elkarren aurka etengabe egoteak?”. Euskaraz amaitu zuen hitzartzea: “Euskal Herri Elkargoari bai!”.

### Angelu ere aurka

Angelun lurralde elkargoaren kontra bozkatu dute hautetsi gehienek, uste eta espero bezala hemen ere. Bosgarren herria da jarrera hori hartzen. Egiari zor, Miarrizte eta Angelu Ipar Euskal Herriko bi hiri handienetakoak dira, hartara,

ezezkoak nabarmen egin du goiti apirilaren hasieran.

Miarritzeren antzera, Angelun 35 hautetsik egin dute Herri Elkargo bakarraren aurka, eta hiruk soilik alde. Hautetsi bakarrak zuri bozkatu du. Bozak eman aurretik gaia eztabaidatu zen, eta Claude Olive auzapeza irmo agertu zen elkargo bakarraren aurka. Besteak beste, honako argudioak azaldu zituen: “Elkargo bakarraren proposamenaren irizpide demografikoak ez dira aintzat hartu izan”. Halaber, federazio baten aukera lehenesten duela esan zuen Olivek, “Metropoli poloa, adibidez”.

Angelu Herriko Etxeak irailean aurrebozketa egin zuen, kontsultazkoa. Olive auzapezake oraingo honetan agertu duen jarrera tinkoak orduan baino boz gehiago bildu du Herri Elkargoaren aurka. Sandrine Derville, Sylvie Laplace eta Jean-Louis Dulace hautetsiek eman zituzten elkargo bakarraren aldeko boto bakarrak. Olive Euskal Kosta-Aturri Hiriguneko presidente izendatu ondoren, kanpaina gogorrean ari da elkargo bakarraren aurka: “Proiektu bat abian jartzeko, promesa faltsu eta demagogiarik erabiltzen ez duen hautetsi izan nahi dut”, adierazi zuen.

### Bozketak herriz herri jarraitzen du

Konparazionerako, Montorik (Zuberoa) eta Landibarrek (Baxenabarre) ezetz bozkatu dute. Haatik, aurkako bozak ez dira baiezkoaren gainetik jarri. Aldekoak. Arbona, Heleta, Ezpeze-Ürdürein, Mendibe, Lekorne, Duzunaritz eta Ainharbe herriak herri elkargoaren aldekoak dira. Baiezkoaren aldekoak, besteren artean.

Bozketetan ezuste handirik ez da izan, oro har, baina izan da aldaketaren bat edo beste. Lapurdiko Getariak, esate baterako, udazkeneko bozketan kontrako iritzia eman zuen, udaberrian, aldiz, emaitza aldekoa izan da modu nabarian: hamabost hautetsietatik hamabik egin dute HELEP bakarraren alde, bik bakarrik aurka. Aldeko botoa ematen duten herrien artean, gainera, aho batez bozkatu duten herriak izan dira, ez biztanle gutxikoak gainera. Hala nola, Hendaia, Senpere, Ezpeleta, Hiriburu eta Saran egin dute hautetsi guztiek elkargoaren alde. Lapurdiko herriak horiek guztiak. Hala eta guztiz ere, udazkenean baino aurkako boz gehiago eman duen herri-rik ere izan da. Bidarte da horietako bat. Euskal Kosta-Aturriko (EKAH) hirigune-



ISABELLE MIQUELESTORENA

Ezkerrean, Claude Olive. Angeluko auzapez eta EKAHko presidentek Metropoli poloa lehenesten du.

» **CLAUDE OLIVE,  
ANGELUKO AUZAPEZA**  
“Elkargo bakarraren proposamenean irizpide demografikoak ez dira aintzat hartu izan”

» **NIKOLAS BLAIN,  
BATERA-KO ELEDUNA:**  
“Elkargo bakarraren aurkakoak desinformazio kanpaina maltzurra egiten ari dira”

ko partaidea hain zuzen ere. Eta emaitza argia izan da: aurkako 20 boz, aldeko zortzi eta abstentzio bat. Orain arte, aldeko boza aldatu duen herri handi bakarra da. Beste bi herritan ere horixe gertatu da, Etxebarren (Zuberoa) eta Irulegin (Baxenabarre). Nolanahi ere den, hautetsien kopuru orokorrak ez du garrantzirik zenbaketan. Baiezkoa edo ezezkoa ateratzen den hartzen da aintzat.

### Baiezkoa oraingoz nagusi

Martxoaren erdiaz gerotik ari dira ematen herriko etxeetako bozketak. Emaitzetan joera orokorra antzeman da orainokoa. Bozkatu dutenen gehien-go HELEPren alde agertu da, baiezko nagusia, herrien kopuruari zein biztanleriari dagokionean. Apirilaren erdialdean, 43 herri ziren elkargoaren

aldekoak, eta 9 aurkakoak. Baiezkoek ordezkatzeko duten biztanleriaren kopurua 135.132 zen. Herri Elkargoak gero eta hurbilago dauka helburua: baiezkoa lortu ahal izateko, gutxienez 147.967 biztanle ordezkatzeko dituzten herriek eman behar diote oniritzia proiektuari.

Ipar Euskal Herriko elkargoaren aldeko eta aurkako bozketen mapa osatuz doa egunez egun: Lapurdiko Lehentze, Makea, Arbona, Larresoro, Beskoitze eta Haltsu. Nafarroa Behereko Aiziritze, Azkarate, Baigorri, Arberatzte, Donapaleu eta Bastida eta Behas-kane. Zuberoako Berrogaine-Larüntze eta beste askok boza emanen dute apirila amaitu orduko. Arberatzte, Bastida eta Haltsu izan dira, apirilaren 14an, azken herriak bozkatzeko: hirurek alde eman dute. Herriko etxe bakoitzak boz-

katze eguna erabakitzen du. Maiatza amaitu arteko epea dute, baina Herri Elkargoa onartzeko behar diren emaitzak lehenago ezagutuko dira. Hots, 147.997 herritar eta 79 herri kopurua gainditutakoan.

Batera plataformako elledun Nikolas Blainen aburuz, HELEPren aurkakoak “desinformazio kanpaina maltzurra egiten ari dira”. Alta bada, Herri Elkargoaren aldeko bozak nagusituko direla dio Blainek: “Iragan udazkenean alde bozkatu zutenek ez dute aurka bozkatzeko arrazoirik”. Egiari zor, alderantzizko jarrerak ere izan dira. Orduan aurka bozkatu zuten zenbaitek alde bozkatu dute orain. Ipar Euskal Herria historiako bihurtune politiko garrantzitsuan murgilduta dago. Euskal instituzioa subjektu bizi-bizia da uneon. Eguneroko gaia solastoki politikoetan. ■



## Liburu azoka

Barakaldon, apirilaren 22tik maiatzaren 1era Herriko plazan

### EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

*Bizi irakurriz!*

# ETA ZUK, GAZTE, PENTSATU DUZU INOIZ HERRIKO EUSKARAREN ERABILERAN ERAGIN DEZAKEZUNIK?

UEMA (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea) ikastetxez ikastetxe ibili da irakasleei soziolinguistikaz prestakuntza eskaintzen. Helburua: irakasleek ikasleak haien herri euskaldunetako egoera soziolinguistikoaz jabeaztea, euskararen aldeko jarrera bultzatzea eta eragile bihurtzea.



Onintza Irureta Azkune

@oirureta

Fer aitak Inhar haurra igeriketa ikastarora eraman nahi du, baina konturatu da euskaraz ez dutela eskaintzen. Eskaera egin du. Pediatrarengana joan deanean gauza bera gertatu zaio, eta pediatra euskalduna eskatu du. Bi eskaerak bete dituzte. Aldaketa horien onurak Inharrentzat soilik izango al dira?

Esperientzia pilotu moduan, zazpi ikastetxetan ikasleekin egindako ariketa asmatuetako bat da kontatu berri duguna. Adibide horretan, norberak emandako pausoak askorentzat onura izan daitezkeela erakutsi nahi die irakasleek ikasleei. Zerbitzua euskaraz eskatzen baduzu, eta lortzen baduzu, ondorengo euskaldun guztientzat baliagarri izango da.

12tik 18 urtera bitarteko gazteek egindako beste ariketa bat: Ikerrek 35 urte ditu, Haranalden (herri hipotetiko) bizi da eta euskaltegian bi urte daramatza. Zer garrantzi ote du beretzat Kilkermendi, Sagastigain eta Garaiotz inguruan izateak? Haranaldetik 17.000 biztanle dauzka eta euskararen ezagutza %51koa da. Beste hiru herrietan ezagutza %81etik gorakoa da. Ariketa horren bidez, ezagutza eta erabilera portzentaje oso handiko herriek euska-

ra ikasten eta erabiltzen zenbateraino eragin dezaketean erakutsi nahi da.

Hausnarketa eta eztabaida pizteko galdera gehiago ere egin dizkiete ikasleei: Luisa Kilkermendin bizi da, Haranaldetik azokara joaten da egunero barazkiak saltzera. Zergatik dira herrietako azokak euskaldunagoak supermerkatu handiak baino? Eta beste hau ere bai: Aratz eta Ekhiñe parrandara irte ten dira eta askotan ez dute euren gustuko musika jartzen, eta beti eskatzen ibiltzen dira: Zea Mays, Berri Txarrak, Hesian, Esne Beltza... Zer eragin dauka horrek Haranaldetik parrandan?

## Zer gertatzen ari da zure herrian?

Esperientzia pilotuan parte hartu duten 400 ikasleak udalerrri euskaldunetan bizi dira, (UEMA n euskara ezagutza %70etik gorakoa duten udalerrriak sartzen dira). Azken hamarkadako emaitza soziolinguistikoek erakutsi dute udalerrri euskaldunenetan euskararen ezagutza behera egiten hasia dela, baita erabilera ere. Josu Labaka UEMAko lehendakariaren hitzak dira: "Alarmak piztuta ditugula onartu behar dugu". Udalerrri euskaldunak euskaldun iza-

ten jarraitzea nahi bada, ez da nahikoa egoera soziolinguistikoaren erretratu egitea. Herritarrek jakin behar dute zer ari den gertatzen beraien herrietan, "eta ahaldundu behar dira. Herrietan lanean hasita gaude, baina hezkuntzan aritzea ere beharrezkoa da. Gaur ikasle direnek jakin behar dute zer gertatzen ari den, eta askatasunez bakoitzak erabakiko du horren aurrean zer egin".

Xabi Aizpurua UEMAko teknikaria aritu da irakasleei prestakuntza saioak eskaintzen, eta berak, Labakaren hitzak beste modu batez laburbildu ditu: "Gaur soziolinguistika landu nahi dugu, bihar ikasleen jarreretan aldaketak emateko aukera zabaltzeko, eta etzi, herriek nagusiki euskaraz jardun dezaten lor genezake."

## Euskara Euskal Herrian hizkuntza nagusia ote?

Soziolinguistika, arnasmune kontzeptua eta hizkuntza ekologiaren inguruko diskurtsoa landu dituzte ikastetxeetan. Galdera berberak bi aldiz egin dizkiete ikasleei; lehenengo kolpean gaiaren inguruan inolako ariketarik, eta beraz, hausnarketarik egin gabe. Artikulu hasieran aipatu ditugun moduko ariketak



GORKA RUBIO / ARGAZKI PRESS

Esperimentazio fasea bukatu da eta apirilaren 13an UEMAK lehen fasearen emaitzak ezagutarazi zituen, Urola Kostako Berritzegunean, Zarautzen. Aurkezpena, parte hartu duten zazpi ikastetxetako ikasleen, irakasleen, herrietako euskara teknikarien, hezkuntzako eragileen eta kazetarien aurrean egin zen.

## 400 IKASLE 7 IKASTETXETAN

- Zazpi ikastetxetan egin dituzte saioak, Alegia, Azpeitia, Orio, Zarautz eta Zumaian. 400 ikasle inguruk hartu dute parte.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailako eta Batxilergoko ikasleak izan dira.
- UEMAn dauden 73 udalerritan Haur Hezkuntzako 90 zentro, Lehen Hezkuntzako 87, DBHko 48, Batxilergoko 20 eta Lanbide Heziketako 13 daude. Oraingoz, DBH eta Batxilergorako dauka UEMAK materiala prestatuta. 2016-2017 ikasturtean maila horietako ikastetxeetan aritzea izango dute helburu.
- UEMAn asmoa lau bat urtean hezkuntza kate osorako materiala prestatu eta ikastetxe guztietara zabaltzea da. -UEMAko kide diren udalerrri asko txikiak dira eta ez dute DBH eta Batxilergorik. Beraz, txikiagoentzako materiala prestatzeak garrantzi berezia du.

eginda gero, bigarren aldiz galdetu diete. Ikasleen erantzunak beltzetik zurira aldatzen ez badira ere, irakasleek anteman dute hiru hilabeteko esku-hartzea.

Esku-hartzeen lau adibide azalduko ditugu. Batean hizkuntzen arteko oreka landu dute. Gehiengoa hizkuntza guztiak indartsu bizitzearen alde agertu da (DBH3koen %82 eta DBH4koen %90). Batez beste, %84 hizkuntzen arteko desoreken aurrean ahulenen alde neurriak hartzeko prest egongo lirarteke. Bada, ikasgelan ariketak eginda, neurriak hartzearen alde %20 gehiago agertu da. Euskal Herrian euskara hizkuntza nagusia ala gutxitua den ere galdetu diete. Jarduerarik egin gabe, %31k uste du euskara Euskal Herrian hizkuntza nagusia dela, eta aldiz, irakasleekin gaia landu ondoren, erantzun zuzena (euskara ez dela hizkuntza nagusia Euskal Herrian) %12 hazi da, guztira %57 izatera iritsiz. Arnasgune kontzeptua –hizkuntza gutxitua normaltasunez erabiltzeko baldintzak dauden herriak kasu honetan– ere landu dute. 10etik 9k ez zuen inoiz entzun. Ikasleek arnaguneen izaera aldakorraz hausnartzeko aukera izan dute. Hots, udalerrri euskaldunean

bititzeak zer esan nahi du, beti izan-go dela udalerrri euskalduna? Ez dute ezagutzak eta erabilerak atzera egingo? Herritarrek lasai bizi daitezke atzerakadaren kezkarik izan gabe? Kezkatzeko arrazoirik ez dagoela uste du ikasleen %27,72k irakaslearekin gaiaz hitz egin aurretik, eta ondoren, %9k.

Beste ariketa batean euskara indartzeko norberak zer egin dezakeen eztabaidatu dute. Jarduerak eginda, %17 igo da zer egin dezaketean badakitela dioten ikasleen kopurua. ■



# Saadet Becerikli, HDP alderdi kurduko parlamentaria

## “AURREKOETAN BAINO ASKOZ ERE BASATIAGOA DA TURKIAKO ESTATUAREN JARRERA KURDISTANEN EGUN”

Newroz eguna da eta Batman hiriko kaleak poliziaz gainezka daude. Turkiako Gobernuak ekitaldi gehienak debekatu dituen arren, sua piztu eta kurduak musika iraultzailearen erritmoan ari dira dantzan. Gasolindegiko tabernan eseri gara Beceriklirekin lasaiago hitz egiteko, nahiz eta behin eta berriz eten behar izan dugun, Turkiako polizia tanketekin sua itzaltzera azaldu denean. Istiluak polizia eta herritarren artean. Poliziak joan diren unean, sua piztu dute berriro.

TESTUA ETA ARGAZKIA:

Asier Lauzurika / Aratz Estonba

@alauruzika / @Zorrotz

### Zein da HDPren estrategia politikoa?

Gatazka modu demokratiko eta bake-tsuan gainditu nahi genuke. Hori hala izan dadin lan egingo dugu, herriak jar-duera honekin bat egin dezan lanean jarraituko dugu.

Era berean, Turkiako Estatuari behin eta berriz esango diogu bide horri ekin diezaiola. Bere guda estrategiak elkar-rrizketa mahaien suntsitzea ekarri du, baina ez dugu etsiko elkarriketaren bi-dea berreskura dadin duela hiru urte be-zala, ez da berandu horretarako. Oçalanek elkarriketa mahai horretan behar luke berriro ere, hura bertatik baztertu izan ez balitz ez geundeke egungo egoe-krudel eta basati honetan.

Bake prozesua hautsi eta gerra estra-tegiari berriro ere ekin izanak ez dakar ezer onik ez kurduontzat, ezta turkia-rrontzat ere. Pertsona batek boterea galtzeko duen beldurrari erantzuten dio guzti honek.

### Zein da egoera Kurdistanen? Zer nolako garrantzia du Newrozek halako testu-iguruan?

Ekainaren 17ko hauteskundeetan, Turkian agintean den AKPk estrategia

aldatu zuen herri kurduaren kontra. Au-rrekoetan baino askoz ere basatiagoa da Estatuaren jarrera egun. Honen au-rrean, gazteriarren indarrean oinarritu-ta, erasoan aurrean autodefentsari ekin zion herri kurduak. Komunikazio guztiak moztuta dauden arren, badaki-gu Sur, Cizre, Nusaybin eta Yuksekovan autodefentsan ari direla.

40 urtez dirau herri kurduak zapal-kuntza saiakera guztien aurrean dagoz-kion bere eskubideen defentsan, bere hizkuntzaren alde, bere identitatearen alde, bere kulturaren alde... Newroz erresistentzia hori egin eta jarraitzeko egun garrantzitsua da.

### Errepresioa ere ez da nolana hiko.

Ez dugu ahaztu behar Newroz ospa-tzeak berak turkiar estatuaren partetik herri honi ekarri dion erantzun basatia. 1992an Cizreko Newroz ospakizunean Estatuak 100 pertsona baino gehiago erail zituen esate baterako.

Newrozak herri kurduaren indarra erakusten du eta honengatik debeka-tzen dute ospakizuna, ez dadin indar hori erakutsi. Gainera ez da lehen al-dia Estatuaren debekua jasotzen du-

guna, duela hilabete inguru Demirtas, gure alderdiko lehendakarikideak bake eta demokraziaren aldeko topaketak antolatu zituen, eta Estatuak debeka-tu egin zituen. Era berean, duela gutxi Demirtasen hitzartze publikoa antolatu genuen milaka pertsona bildu zituen manifestazio batekin, eta hura ere de-bekatu zuten. Ez digute utzi nahi gure indarra erakusten, ez digute utzi nahi kalean gure batasuna adieraz dezagun, beldurra digute.

Gerra estrategia honek pertsona bakarraren behar eta nahiei eran-tzuten die, bere interes pertsonalak gainjartzen zaizkio prozesu politiko orokorrari. Honek ezinbestean egoe-ra eta konponbidea zaildu baino ez ditu egiten.

### Europari dagokionez, batetik Estatu eta gobernuen isiltasuna dago eta bestetik milaka herritarrek erakusten duten elkar-tasuna. Nola bizi duzue egoera?

90eko hamarkadan Turkiako Estatuak herri kurduaren kontrako sarraskia burutu zuenean, Europako jendea hona etorri zen testigantza jaso eta Giza Eskubideen Auzitegira eramate-



“Bake prozesua hautsi eta gerra estrategiari berriro ere ekin izanak ez dakar ezer onik, ez kurduontzat, ezta turkiarrentzat ere”

“Oçalanek elkarrizketa mahai horretan behar luke berriro ere, hura bertatik baztertu izan ez balitz ez geundeke egungo egoera krudel eta basati honetan”

“100 pertsona baino gehiago bizirik erre dituzte Cizren”

ko. Gaur egun, ordea, gogorra da ikus-tea nola isiltzen diren gertatzen ari denaren aurrean. Adibidez, Cizren 100 pertsona baino gehiago bizirik erre dituzte, Turkiako armadaren erasoetatik babestu asmoz haien etxeetako sotoetan ezkutatuta zeuden. Europako Gobernuak isilik daude. Egunero erabiltzen du negarra eragiteko gasa poliziak herritarren kontra eta Europako gobernuek txintik ez. Une honetan, 100 egun baino gehiagoz, herritarrak Surren setioari eusten ari dira modu ausartean, nahiz eta armada eta polizia haiek akabatzen ari den gutxina-ka. European ez du inork hitzik esaten egoera salatzeke.

#### **Europar Batasunak Turkiarekin egindako itunak izango du zerikusirik.**

Noski baietz. Honen guztiaren atzean europar migrazio politika dago eta Turkiarekin egindako negozio zikina. Haien jarrerak salatu dudana egoera babesteko balio du. Hemendik dei egiten diegu europar agintariei jarrera hori alboratu dezaten, bestela Turkiako Gobernuaren sarraskiaren konplize bihurtzen baitira.

Guda hau amaitzeko lanean jarri behar lituzke Europak bere indarra, dirua eta esfortzuak. Siriako gudan nahasteari utzi eta bake bidean indarrak jarri. Konturatu behar dute, haien-tzat hain deserosoa den siriarrak errefuxia-

tuen egoera errepikatuko dela Turkian. Adibide bat jartzearen, Diyarbakirren etxea galdu eta etengabeko mehatxua bizi duen familia batek ez du egoteko lekurik topatuko Turkian eta ondorioz Europara ihes egin beharko du. European jarrerak, ekidin nahi duela dioen egoera larriagotu baino ez du egiten. Gure bake asmoekin bat egin behar luke haiek ere eta Turkiar Gobernuari presio egin honekin bat egin dezan.

#### **Zer esango zenieke Europako herritarrei?**

Etor zaitezte gertatzen ari denaren lekuko izatera, eta hemen ikusi eta bizitakoa zuen herrietan kontatu eta salatu. Lagun gaitzazue! ■

# Deabru-zura



Jakoba Errekondo

[jakoba@bizibaratzea.eus](mailto:jakoba@bizibaratzea.eus)

Zuraz inguratua nabil azkenaldi honetan. Basoak eta zuhaitzak gugan duen indarra, eta gure kulturaren duen eraginaz dokumental galant horietako bat egiteko ardura tzarra hartua du bizkarrean Jon Maiak; *Gutik Zura* du izena eta bera gauzatzen sos batzuekin lagundu nahi duenak jo beza webgune honetara, [www.verkami.com/projects/14630-gutik-zura](http://www.verkami.com/projects/14630-gutik-zura). Galdezka etorri zait, eta ezin dut burutik kendu gure kulturak eta zurak duten eman-hartu estua.

Malerrekako Zubietan izan naiz aurreko asteburuan. Ezkurra errekaren erriberetan, Landan barrena ibili gara bertakoeekin ikasten bertako landare, mendi, toki eta abarren izenak. Tartean bada Petrixeneko Lino Elizaldekin landatutako zuhaitz bilduma polit bat. Han azaldu zuen jendeak zuhaitzotaz dakiena, denon ikasgai: mozkortu nahi baduzu honen fruitua jan, honen loreak ikaragarritzko usaina du, honen alea sagardoari nahasten zitzaion, txiletarra da hau; banan-banan pasa genituen aurrez aurre ezagutzeko. Horrelako aurkezpenak eginez ikasten da. Errekan behereago, bide bazterrean ezagutu genuen arbustua –arbustu arrunta edo japoniar



*Ligustrum japonicum*.

JOSÉ LUIS GÁLVEZ-CC BY SA

arbustua– edo “deabru-zura” deitzen dena, *Ligustrum japonicum*. “Deabru-zura” hori nondik ote datorkio? Bere zura gogorra eta malgua da; ez da holarik erraz aurkitzen. Adar berriak lokarri gisa erabili izan dira. Hortik ote datorkio izena, *Ligustrum* alegia? Plinio Zaharrak omen dio *ligo, āre* (lotu) aditz latinotik datorkiola. Upelak itxi eta irekitzen dituzten txotxetan ere ikusi izan dut zur hori.

Zubietako Landako bueltan zebilen Saldiasko Enekoren sendiak pinudia bota omen du, eta sos batzuk hartu omen dituztenez galdezka nuen ea zer zuhaitz landatu etooorkizunari begira. Berak sasiakazia (*Robinia pseudoaca-*

*cia*) aipatu eta zenbaitek kontuz ibiltzeko esan diola, inbaditzailea dela eta terreno muganteen jabeak kexu izango dituela, eta nik: egiten duena egiten duela, jartzen duena jartzen duela muganteekin triska beti izango duela eta sasiakaziarekin aurrera jotzeko, zalan-tzarik gabe! Sekuoiez (*Sequoia sempervirens* eta *Sequoiadendron giganteum*) ere jakin nahi zuen, eta alertzeaz (*Larix europaea*), eta nik zedroa (*Cedrus sp.*) aipatu nion, gure etxera etortzen deno hainbeste ferekatzen duen mahaiaren materiala. Horiez gain, Linoren bilduman ezagutu zuen kriptomeria (*Cryptomeria japonica*) ere jartzeko. Basoen diseinua, etorkizuna.



## Apirila, behar ez lukeen hila

Hazia eta fruitua eman nahi dituenak badaki: lorea eman behar. Bestela, jai du. Haritz kandudunaren (*Quercus robur*) lore pinpirina bistaratu da apiril lirainaren argira. Apirila busti behar duten lainoak ekarriko dituzten haizeen itxaropenean begiak ireki eta lore errosario zintzilikarioak luzatuko ditu haritzak. Lore sorta horiek poxpolin arinenaren pozarekin dantzatuko dira haize heze horietan. Haizeak ekarri eta eramango ditu loretik lorera, itxaropenetik itxaropenera, ezkurra ekarriko duten polen ttantak.





Baztango Zaporeak ekimenaren aurkezpena.

ERRAN.EUS

ZER JAN, HALAKO BAZTAN

# Udaletik ere elikadura eta nekazaritza eredia lantzen



Garazi Zabaleta  
@tirikitran

“Maiz badira gauzak herritarren eskue-tatik urrun daudenak edo aldatzeko zailak direnak. Baina badira bertze gauza batzuk herritarren eskurago daudenak: horietan eraginez tokiko errealitateak alda ditzakegu”. Joseba Otondo Bikon-doa Baztango alkatearen lehen hitzak izan dira *Zer jan, halako Baztan* ekime-naz galdetu diogunean.

Tokiko elikagaiak kontsumitzearen garrantziaz Baztango herritarrek kontzientziatzeko helburuarekin abiatu du dinamika Udalak. Bi hilabetero etxeetara bidaliko diren esku-orriekin hasi dute bidea: ale bakoitzean tokiko produktu baten gaineko informazioa eskainiko da nola egiten den azalduz, produktu horrek alor askotan duen balioari garrantzia emanez eta errezeta originalak proposatuz. Lehen esku-orrian ardi esnea lan-du da: artzaintzari buruzko informazioa eman eta lan horrek paisaiaren zainketan duen balioa azpimarratu dute bertan.

## Elikadura eta nekazaritza uztartuta

Udalak duela hilabete gutxi jarri zuen abian *Baztango zaporeak* ekimena ere:

tokiko ekoizle eraldatzaileak dira protagonistak, eta elkarlanaren bidez beren proiektuak garatzea da helburua. “Urteetan Europako nekazaritza politikek agroindustriaren eta banatzaile handien interesak bultzatu dituzte, gure bailare-tako nekazaritza txikia erraustuz”, dio Otondok. Horri buelta emateko beharrezko izanen dira ekoizle txikien arteko elkarlana eta batasuna, haren ustez.

## “Tokioa kontsumitzea da tokiko bizitza bizirik mantentzea”

Herritik asko egin daitekeela argi du Otondok, eta norabide horretan doaz jada martxan dituzten ildoak: 1) lurren erabilerekin ingurukoa, 2) produktuen eraldaketa eta merkaturatzea, 3) herri-tarren kontzientzia piztea, 4) formakun-tza eta 5) ustiategien transmisioa fami-liatik kanpo. Aurrera begira, martxan dauden ideia eta ildo horiek egituratu eta Baztanen nekazaritzaren eta elika-duraren kontseilu moduko bat sortzea dute helburu. *Baztango zaporeak* egi-tasmoaren aurkezpenean zioten bezala, “pausoz pauso, ttikitik handira”. ■

## BIZI BARATZEA

**Gure kultura iraultzen ari den liburua**

Bloga: [www.argia.eus/bizi-baratzea](http://www.argia.eus/bizi-baratzea)  
t @bizibaratzea



### Eskaerak:

943 371 545 · [www.argia.eus/denda](http://www.argia.eus/denda)

Salneurria: 23 €  
Harpidetzat: 19,50 €

## AURKEZPEN HITZALDIAK

### Apirilak 20: Gabiria

Kultur Etxean, 18:00etan.  
Udalak antolatuta.

### Apirilak 23: Hendaia

Udal aretoan, 18:00etan. Ondoren otordua Balea elkartearen (otodurako izena eman behar da).

### Apirilak 23: Donostia

Trinitate enparantzan, 11:00etan.  
Gaztetxea eskatzeko “Ez dugu non” kanpainaren barruan.

### Apirilak 26: Arbizu

Lekua eta ordua zehazteke.

### Maiatzak 3: Eskoriatza

Zaldibar antzokian, 18:30ean.  
Udalak antolatuta.

### Maiatzak 4: Orkoiin

Madariaga dorretxean (EAEko Biodibertsitate Zentroa), 11:30ean.

ANTOLATU ZURE HERRIAN

[sustapena@argia.eus](mailto:sustapena@argia.eus)  
☎ 943 371 545

# KORANA "LIBREKI" ITZULTZEN IRUÑEAN



Nagore Irazustabarrena  
Uranga

@irazustabarrena

Iruñea, 1143. Robert of Ketton (Rober-tus Ketenensis, latinez) teologo, astro-nomo, itzultzaile eta arabista ingelesak Korana itzuli zuen latinera lehenengoz. Bere bizitzako lehen urteez gutxi daki-gun arren, badirudi Kettonek Parisen ikasi zuela. 1134an lau urte iraungo zuen bidaia luzea abiatu zuen Ekialdera. Bizantziar Inperioan, Palestinan eta Da-maskon izan zen eta, gerora, arabierako itzultzaile gisa ezagun egingo zen.

1141erako Iberiar penintsulan ze-goen; lurraldea musulmanen eta kris-tauen artean banatuta egonik, penin-tsula toki aproposa zen arabierako itzultzaileentzat. Badakigu 1143an Iruñean zela, bertako artxidiakono izen-datu baitzuten. Berez, nahiago omen zuen testu zientifikoak itzultzea, teo-logikoak baino. Euklidesen lana ezagu-tzen zuen eta Al Battani nahiz Avicenaren lanak itzuli zituen. Korana, aldiz, enkarguz latineratu zuen.

1142an Petri Beneragarria Clunyo abadearen bisita jaso zuen. Abadea is-lamari buruzko informazioa biltzen ari zen, *Liber contra sectam sive haeresim Sarracenorum* (Sarrazenoen sekta edo edo heresiaren kontrako liburua) idaz-teko, eta Kettoni Korana itzultzeko or-daindu zion.

Itzultzaileak ez zuen testuaren itzul-pen fidela egin; ez zabarkeriaz, intentzio



BRITISH MUSEUM

XI. mendeko Korana, Afrika iparraldekoa. Hurrengo mendean, Robert of Kettonek (c. 1110-1160) Koranaren latinezko lehen itzulpena egin zuen Iruñean.

osoz baizik. Itzulpenaren asmoa islama gutxiatea zela garbi erakusten du lati-nezko lehen bertsio horren izenburuak: *Lex Mahumet pseudoprophete* (Mahoma sasiprofetaren legea). Xehetasun kal-tegabeak puztuz eta kutsu krudel eta lizuna emanaz, Koranaren interpretazio guttiz negatiboa osatu zuen.

1157an Tuterako kanonigo izendatu zutela eta beste ezer gutxi dakigu Ke-ttonen azken urteez. Baina bere itzul-penak itzal luzea izan zuen. Hurrengo mendeetan Korana Europako hizkun-

tzetan itzultzen hasi zirenean, Ketto-nen bertsioa hartu ohi zen oinarri, eta ez originala. Esaterako, 1547an Andrea ArrivabeneK Kettonen itzulpena erabili zuen Korana italieraz emateko, 1616an italierazkoa hartu zuen oinarri Salomon Schweiggerrek alemanezko lehen itzul-pena egiteko, eta aurrerago, alemanez-koa izango zen nederlanderazko ber-tzioaren oinarri. Hala, Iruñean egindako itzulpen desitxuratu hark mende luzez eragin du Mendebaldeak islamaz izan duen irudian ■



ABU AMINA ELIAS

## Biblia bortitzagoa da Korana baino

Tom Anderson software ingeniariak Bi-blia eta Korana aztertu ditu berak gara-tutako Odin Text testuak analizatzeko softwarearen bidez. Indarkeria eta an-kerkeria bietako zeinetan diren nabar-menagoak jakin nahi zuen Andersonek eta emaitzak dio Bibliak Koranari irabaz-ten diola zentzu horretan. *Anger* (hase-rra, amorrua) askoz maizago agertzen

da Biblian eta *trust* (konfiantza), aldiz, ohikoagoa da Koranean. Informatikariak Itun Zahar eta Berriaren nazioarteko bertsio berriak eta Koranaren 1957ko ingelesezko itzulpen bat erabili ditu iker-ketarako. Emaitza beharbada zehatzagoa litzateke arabierazko jatorrizkoa aztertu izan balu, baina, behintzat, ez du Ketto-nen itzulpena erabili. ■

## AGUR ETA OHORE SUSTRAI COLINAREN ELKARRIZKETEI

## Deabruaren abokatu zorrotza



**Itsaso Zubiria Etxeberria**  
@itsasozubiria


Triste xamar nago, irakurle, ez dizut gezurrik esango. Sustrai Colinaren kolaborazioak bukatu dira. Zenbat ikasi ote dudan bere galderekin eta ARGIAra ekarri dituen pertsonekin... Mundu berari oso erpin diferenteak aurkitzen zaizkio begiratzeko angelua aldatzen bada. Eta Sustraiak esfortzu berezia egiten du betiko angelutik aldendu eta beste ikuspegi bat emateko.

Ia 300 elkarrizketa argitaratu ditu gurean, kultur munduan, politikan, euskalgintzan, gastronomian, komunikazioan... puntan dabilenari ahalik eta galderarik zorrotzena eginez erantzunik fina eskuratuz.

Zenbat portada eman ote dizkio hamar urte hauetan Sustrai ARGIAri? Azala merezi zutenak baino gutxiago, ziur. Deabruak sekula izan ote du horrelako abokaturik? Lerro hauek idazten ari den gazte burugabeak baino ezagutza handiagoa izango du hitzok irakurtzen ari den gehienak, baina ez dut sinesten zuek ere Colinaren elkarrizketekin ez duzuenik ezer edo inor deskubritu.

Gogoratzen, adibidez, Dominique Belpommeri egindakoa? Orain bost urte argitaratutako testua gustura ekarriko nuke berri ere azalera, titularra gaur egunera: "Pestizida eta erraustegiak gizateriaren aurkako krimenak dira". To!

Zakilixut bera ere elkarrizketatu zuen 2007. urte aldera. Hark botatako esaldi batek definitzen du ondoen Colinaren lana: "Ez haiz adarretatik ibiltzen, Sustrai". Ez al da mundiala? Eta agian jada gure generazioari gertuago egiten zaiolako-edo, baina oroitzen dut Gorka Urbizuri egindakoa, osorik eta antsietatearekin irentsi nuena; benetan ona.



Lapurarrak lortzen du euskal mundu txiki honetan horrenbestetan elkarrizketatutako norbaiti zerbait desberdina ateratzea, beste ukitu bat ematea.

Eta momentu delikatuetan azaleko zerbait bezala geratu gabe busti eta galdera bezala erantzun konprometitu eta zuzenak ere ekarri dizkigu paperekorra. EPPK-ko bozeramaile Mikel Albisuri eta Marixol Iparragirrerri egindako elkarrizketa datorrit gogora.

Eskerrik asko, Sustrai. ■

## Irakurleek sarean:

**IñigoRoqueEguzkitza**

@Idazkola

Ederra litzateke Itxaro Bordak eta @ainara\_axpi-k @argia-rako apailaturiko euskal baladei buruzko artikulu sorta liburu-tankeran ateratzea.

**@erreharria**

@erreharria

Udarako kami berria, @argia ren eskutik #TxikitikEragiten


**Mikel Goñi Larrea**

@mikelgoni

@argia-ko Asier Lopezekin bat nator. "Mozal legearen okerrenena ez da zigorra, sortzen duen beldurra baizik"

**Miren Larrion**

@miren\_larrion

Gaurko @argia-rekin betiko zer ekarriko duen zirrari harrotasuna gehitu zaio. Egia iraultzailea da #ARGIAMozalikGabe


**Iñaki Idigoras**

@Inakildigoras

Poztu, harrotu eta harritu nau #ArgiaMozalikGabe alearen babesle birritan #Oñati: Udala eta @upvehu @argia #piztu

**Edu Zabala**

@goikone

@argia sartu da gure etxean... geratzeko.

**Nega**, Los Chikos del Maíz taldeko abeslaria

# “BATZUETAN DESERTUAN OIHUKA ARI DENAREN SENTSAZIOA DUT”

Eszenatokiak utziko ditu Los Chikos Del Maíz taldeak denboraldi luze baterako. Aurretik ordea, Andoaingo gaztetxean izango dira apirilaren 23an. Euren ibilbidea izan dugu hizpide Nega abeslariarekin.



Xuban Zubiria

@xubanzubiria

## Valentziako rap talde konprometitu bat: noiz eta nola sortzen da Los Chikos del Maíz?

2004an hasi zen dena, ni 13 Pasos ize-neko proiektu batean nengoen, baina denbora luzea zeraman geldirik. Toniri [taldeko beste ahotsa] berdina gertatzen zitzaien La Nota Más Altarekin. Elkarrenganako miresmen handia genuen. Arratsalde batean elkartzea erabaki eta bost kantuz osaturiko *tracklist* bat egin genuen. Beste guztia historia da.

## Lehen lana argitaratu zenutenetik denbora igaro da. Gogorra da musikarion bizitza? Zertan hobetu da zuen rap-a?

Proiektuak hamar urte bete ditu duela gutxi, musikatik bizitzen bost urte daramatzagu gutxi gorabehera. Errepidea gogorra da, etxetik kanpo lo egin, etxetik kanpo jan, ez da erraza. Nire kasuan ordea, berogailuak konpontzea edo hodiak soldatzea baino nabarmen hobea

da gaur egun dudak bizitza. Ez zara aberrats egiten –are gutxiago guk egiten ditugun kantu eta hitzekin–, baina zure buruaren nagusia zara eta ez zaitu inork esplotatzen, hori da garrantzitsua.

Iruditzen zait gaur egun egiten dugun guztia neurtuagoa eta askoz landuagoa dela. Maiz naturaltasuna gal dezakegu, baina guztia profesionalagoa da.

## Konpromiso sozialak eta gazteriarekin konektatzeko erraztasunak egiten duen taldea berezi. Erraza da konpromisoa eta ospea uztartzea?

Zaila da mobilizazio politikoen garai hauetan leku guztietara heltzea. Mila lekutatik deitu eta eskatzen digute baba: kartzelaratuak, Alfonen kasua, Andres Boladoren, euskal gazteria... Hainbeste kasu eta injustizia daude, behartuta gaudela selektiboak izatera. Zoritxarrez, ezin gara leku guztietara heldu. Bestalde, fakturak ordaindu beharra dago eta ezin da beti militantzia

hutsagatik jo. Nik uste borroka konstantean bizi dugula hau guztia, nolabaiteko oreka lortu nahian. Ahal duguna egiten dugu.

## El miedo va a cambiar de bando (“beldurra alde aldatuko da”) Riot Propagandaren lelo izatetik, Podemos eta Mareen eslogan izateraino: noraino heltzen da zuen influentzia?

Gustatuko litzaigukeena baina ahulagoa da. Hala ere, lelo hori beti egon da hor, guk kantu batean txertatu genuen, baina jakinduria kolektiboaren emaitza da.

## Arnaldo Otegiaren eta euskal preso politikoen arazoa presente izan duzue beti. Nola ikusten duzu ezker abertzalearen buruzagia datozkion erronka berrien aurrean?

Indartsu eta aukera askorekin ikusten dut. Gainera, jasan duen kartzelaldia intelektuali eta politikoki formatzen jarraitzeko erabili duela uste dut, eta



ALBA GUSANO

hori abantaila moduan erabili dezake. Erronka ugari ditu, ezker abertzalearen barne gatazketatik hasi eta Podemosen igoera ikusgarriraino. Esan beharrik ez dago, garai oso garrantzitsuak datoz Euskal Herriarentzat, baita Espainiako Estatuarentzat ere. Uste dut momentu historiko eta erabakigarria bizi dugula maila guztietan.

**Espainiako Estatuan protesta kutsuko rapa egiten duten talderik garrantzitsuenetakoa zarete. Nola dago hip-hop eszena Espainian? Deskafinatuta jarraitzen du?**

Oso deskafinatuta. Hor daude, baina ez daude. Batzuetan desertuan oihuka ari denaren sentsazioa dut. Hemen biziko ez balira bezala da. Gaur egun famatuak diren hainbat rapero *Twitter* bidez jarraitzen ditut eta gehiengoak ez du errefuxiatuen edo azken atentatuen inguruan deus idatzi. Beste planeta batean biziko balira bezala da.

**“Garai garrantzitsuak datoz Euskal Herrian eta Espainiako Estatuan. Momentu historikoa bizi dugu”**

**“Mila lekutatik eskatzen digute babesa. Hainbeste injustiarekin, ezin gara leku guztietara heldu”**

*Nega (argazkian erdian) Los Chikos del Maíz taldeko ahotsetako bat da. Azken urteetan oso ezaguna egin da Espainiako Estatuan euren rap aldarrikatzailea.*

**Mozal Legea medio, aldizkari honetako Axier Lopez zigortu dute bere kazetari lanagatik. Zuen ibilbidean ere maiz zentsuratu zaituztete. Nola sentitzen zara horrelakoen aurrean?**

Frustrazio handia sortzen du, inpotente sentitzen zara. Badakizu, gainera, zentsura beti norabide jakin batean doala. Federico Jiménez Losantosek eskopeta hartu eta Podemosekoak hilko dituela esaten duen bakoitzean badakizu ez zaiola ezer gertatuko. Eskuinak edozein astakeria esan dezake. Hipokresia izugarria bizi dugu gaur egun Espainiako Estatuan. “*Je suis Charlie Hebdo*” esaten duten berdinek zure kontzertua zentsuratzeko eskatzen dute. Are gehiago, gaizkileak garelara argudiatuta gure kon-

tzertua bertan behera uzteko eskatu zuen Getafeko PPK. Ustelkeriagatik kide ugari inputatuta dituzte orain.

Alde ekonomikoa ere hor dago, horretaz ez da inoiz hitz egiten. Zuk kontzertu hori kontuan hartzen zenuen alokairua ordaintzeko eta bat-batean kontzertua pikutara doa. Horrelakoetan malabaris-moak egitera behartuta gaude.

#### Nola egin aurre askatasun falta horri?

Ez da erraza. Gaur egun internet da medioen diktadura eta zentsura bera gainditzeko dugun tresnarik eraginkorrenetako bat. Lehen bezala, ordea, horrelako erasoak eragozteko dugun gauzarik indartsuena herrigintza eta ahoz ahokoa da.

**Zentsura ez da oztopo izan, *La estanquera de Saigon* zuen azken lanaren bide luzean. Izugarrizko arrakasta izan da Euskal Herrian eta Espainiako Estatuan. Espero zenuten tsunami hori?**

Ez, ezta inondik ere. Eromena izan da. Diskoak oso ondo funtzionatu du leku guztietan.

**Hip Hopa Euskal Herriko musikaren agendan sartzeari lortu duzue. Nabaritzen al da boom hori kontzertuetan?**

Zaila izan da, Euskal Herrian Euskal Rock Erradikala bezalako mugimenduek pisu handia izan dute eta gaur egun oraindik rock/punk tradizioa indartsua da. Hamarkada bat daramagu Euskal Herrian jotzen eta nabaritu dugu azken urteetan nola rapak bere lekutxoa egin duen Herriko Taberna, txosna eta herri mugimenduaren beste guneetan. Oroitzen naiz urte batean Bilboko Aste Nagusira heldu eta *Pasión de Talibanes* kalean egur bizian entzutea, momentu

**“Gogo handia dugu gaztetxe batean jotzeko: maiz festibal handietan aritzeak errealitatetik urruntzen zaitu”**

**“Zentsuraren alde ekonomikoaz ez da inoiz hitz egiten: zuk kontzertu hori kontuan hartzen zenuen alokairua pagatzeko. Eta pikutara doanean zer?”**

**“Eskuinak edozein astakeria esateko askatasuna dauka”**

hura antologikoa izan zen. Gaur egun rapa sumatzen den zerbait da Euskal Herrian, eta euskaraz kantatzen duen gero eta talde gehiago dago.

#### Nolakoa da euskal publikoa?

Egiari zor, geldo fama duzue. Barnealdeko herrietan jendea geldoagoa dela nabaritu dut. Hori ez da txarra, jendea

leku askotan horrela da, beraien izaeraren parte da. Kontzertuan salto txikiena eman ez duena emanaldiaren amaieran zorientzera etortzen zaizu eta bere bizitzako kontzerturik onenetariko bat izan dela esaten dizu, erokeria da.

Euskal Herrian bizi izan dugun plaza harrigarriena Gasteiz izan da. Kontzertuaren hasieratik amaiera bitartean salto, oihu eta bultzakaden eromen kolektibo konstantea izan zen emanaldia, ez dugu erraz ahaztuko.

Publikoaz harago, jotzeko dagoen lekurik onenetariko da Euskal Herria. Soinuan beti profesionalak daude eta musikaria asko zaintzen da. Bestetik, gastronomia eta paisaiaren *plus*-a duzue. Uda osoa hemengo herri eta hirietan jotzen pasa ostean, iraileko oporraldia Lekeition eta Mundakan pasa nuen. Ezin Euskal Herriaz nazkatu!

**Apirilak 23an, *La Estanquera de Saigonek* Andoainen hartuko du lur 2zio taldearekin batera. Zer aurkituko dugu kontzertuan?**

Emankizunaren hainbat ezaugarri aldaturiko dugu. Gogo handia dugu gaztetxe batean jotzeko. Maiz festibal eta antzoki handietan jotzeak errealitatetik aldentzen zaitu, jatorrietara itzultzea gauza ederra da.

**Kantu berriez asko hitz egin da, noizko izango da kalean zuen proiektu berria?**

Maiatzaren erdialdean lau kantuz osaturiko EP bat argitaratuko dugu *La Estanquera de Saigonen* amaiera modura. Horren ostean denbora luze baterako agur esango du Los Chikos del Maíz. Hurrengo urtean Riot Propaganda itzuliko da eta ostean bakarkako lanetan murgilduko gara. ■



## JEXUX ARTZE KULTUR ELKARTEA UDABERRIKO EKITALDIAK



**MAIATZAK 6, OSTIRALA / 22:00**  
SUTEGIKO AUDITORIOAN

Txalok aurkeztutako  
“Heroiak” antzezlana

**MAIATZAK 7, LARUNBATA / 22:00**  
SUTEGIKO AUDITORIOAN

Jabier Muguruza, “Tonetti  
anaiak” diska aurkeztuz.



Sarrerak: 8 € aldeaz aurretik Usurbilgo Lizardi liburutegian (Etxebeste, 1- 943 361 115) / 10 € egun berean (lehiatilan)

# ARTXIBO SORTZAILEAK

Zerbait artxibatzen dugunean, inkontzienteki bada ere, materia hiltzat jotzen dugu: pasa da, klasifikatuta dago, behar den tokian gordea eta izendatua. Baina artxiboak sorkuntzarako tresna ere izan daitezke. Iraganeko materiala berrerabiliz, oraina beste modu batera pentsatzen lagun dezakete. Artxiboa modu dinamiko horretan ulertzeak batzen ditu Tabakalerak inauguratu dituen bi erakusketa berriak.



**Gorka Bereziartua Mitxelena**  
@boligorria

Tabakalarekin gertatzen ari da erai-kinaz, irekitzen ari diren espazioez, erakunde publikoez eta antzeko kontuez gehiegi hitz egiten ari garela eta gutxitxo, aldiz, espazio horretan antolatzen ari diren zenbait gauzari buruz. Erakusketak, adibidez: joan den irailan *Ikus-entzunezkoaren aldiriak* exigentearekin abiatu zuen ibilbidea, asmo-deklarazio bat zentroaren proiektu kulturalak buruan daukan ildo eza-gutzen hasteko. Baina inaugurazioaren metrailapean, ez zuen bide errazik aurkitu. Zorte hobea izango al dute joan den ostiralean inauguraturutako biek. Lantzen dituzten gaiak eta proposatzen dituzten goioetek behintzat, arreta deitzen dute.

*Anarchivo SIDA* da aurrenekoa: Equipo re-k (Aimar Arriola, Nancy Garín eta Linda Valdés) komisionatutako erakusketa da eta apirilaren 15etik ekainaren 26ra ikusi daiteke. Hiru urteko lanaren emaitza da. Tarte horretan, HIESak ekoizpen kulturean izan duen inpartua aztertu dute, fokua Euskal Herrian



Euskal Herriko irudiez gain Latinoamerikakoak ere jaso dituzte 'Anarchivo SIDA' erakusketan, Txileko hau, adibidez. Helburua, HIESaren inguruko diskurtso kulturalak birpentsatzea.

MUMS

eta Espainiako Estatuan jarriz, baita Latinoamerikan ere.

Erakusketaren tituluak adierazten duen moduan, "kontra-artxibo" moduko bat da. Antolatzaileen ustez, HIESaren inpaktu kulturala asko aztertu da azken urteetan, baina AEBetako eta ipar-erdialdeko Europako iruditeria nagusitu da. Alde horretatik, erakusketak iraganaren bestelako lekukotza eskaintzea baino, "oraina berridazteko aukera" eskaini gura du. Eta hori lortzeko, erakusketarekin lotuta jarduera paralelo ugari antolatu dute, HIESduna nola izendatzen den eztabaidatzetik hasi, eta inguruko botere-harremanak zalantzan jartzera bideratutako hitzaldi, tailer eta performanceekin.

## Independentziaren biharamunean

*The day after* du izena Tabakalera joan den astetik bisitatu daitekeen beste erakusketak. Maryam Jafri artista pakistandarraren lanak ere artxiboa du abiapuntu, baina kasu honetan hurbilpena oso bestelakoa da. *Independence Day*

1934-1975 obratik abiatu da proiektu honetarako: lurralde bat nazio independente bihurtu osteko lehen 24 orduak dira ardatza eta erakutsi nahi da nola Mendebaldeko estatuaren eredia mundu osora esportatu izanaren ondorioz, leku gehienetan horrelako prozesuek irudi berdinak erreproduzitzen dituzten.

Baina abiapuntu horretatik harago doa Jafri *The day after*-en, kontakizun estandarizatu horietako arrakalen bila. Gainera, erakusketak irudien jabetza-aren auzia ere mahai gainean jartzen du: *Independence Day 1934-1975* osatzeko egindako ikerketan artista konturatu zen nazioarteko argazki-agentziek zabalitzen dituzten irudi asko herrialde berrietako gobernuak emandakoak zirela. Agentziek beren funtsaren partetzat baldin badauzkate, agentzia horiek baldin badira munduan hedatzen dituztenak, norenak dira irudi horiek?

Independentziaz hainbeste hitz egiten ari garen garaioan, emango du nondik heldua segurua. ■

# KULTURKRITIKA


» LIBURUA

## Bakarra eta bera



Aritz Galarraga

@aritzgalarraga



### Mundu txikia

ALBERTO BARANDIARAN

Susa, 2005

Irakurketa batek eramaten zaitu beste irakurketa batera, eta irakurketa horrek eramaten zaitu hirugarrenera, eta hirugarren horrek beste batera, etcetera, etcetera. Halako katean iritsi naiz neroni, bidenabarkoan aspaldi handian zain neukan Alberto Barandiaranen *Mundu txikia* narrazio bildumara. Juan Garzia Garmendiaren *Akaso* irakurri berri –zehatzago *Bele jolasak* ipuina, zeinean, sexu afera batzuk tarteko, mendeku txiki bat hartzen den eskolako fraideen kontra–, irakurri nuen Barandiaranen kazetari lana: Irungo La Salle, 1970eko hamarkada, gehiegikeriak ikasleen kontra. Baina *Berriako* artikulua bazuen ifrentzua, baliokide bat fikziozkoa, *Martxel*, hain zuzen Barandiaranek fikzioan egin duen sartu-irten bakarrekoa.

Hasiera-hasieratik da kolpagarria: “Nik, esperientzia, Adrianarekin –eta gero, atera zitzaidan–: eta Sebastianekin (...) Apaizgaitegiko arduradunetako batekin”. Eta zeinen ondo islatzen duen, ez bakarrik esperientzia lazgarria, baizik eta, beste hark esango lukeen bezala, euskaldunen paralisi komunikatiboa. Baina ez da bakarra. Hartu bestela *Ekaitz*, euskara errefusatzeko duen haurra, hizkuntza afektiboa gaztelania baita, hain erreala. Hartu *Elvira*, ikusteko iraganeko gerrak zeinen presente dauden orainean, zeinen presente leizea, kolpe batean Sagar-dia Goñi familiaren hura gogora ekartzen diguna –ez ahaztu: emaztea eta haren sei seme-alaba leize-zulo batetik behera bota zituzten 1936an–. Edota *Kotte*, ikurrinaren legeztatzearen 25. urtemugaren aitza, etorri ez zen iraultzaz mintzo dena –“eroso-

tasuna aukeratu du: onartu du bere porrota, ez du mundua aldatu, kito”–, ibili ziren bideak zalantzan jartzen dituenen –“Oraindik barruan zagok. Ez zian zigorren murrizketarik onartu. Berak, orduan, bai”–. Eta orain ondo pentsatuta, periodikoetan irakurritakoak izango dira narrazioetako ez gutxi. Baina liburukoak ez dira batere periodistikoak: neskato etorkin baten bizikizunak, desberdintasunak; amona zaharrak kantatzen ziona ulertzeko gai ez den biloba; aita baten kezka ama baten absentsian. Guztiak, istorio ustez txikiak. Baina ondo dio *Kotte* ipuineko protagonistak, bizitzaren kasualitateak, kazetari denak: “Argazki txiki baten bidez, argazki handia egin nezakeela”. Kasu honetan ere, argazki txiki askoren bidez, mundu txiki askoren elkarketarekin mundu zabalago bat erakutsiko zaigu, gure mundua deitzen diogun horretatik sobera urrun ez legokeena.

Irakurketa batek eramaten zaitu beste irakurketa batera, eta irakurketa horrek eramaten zaitu beste batera, eta azkenerako irakurketa guztiak dira bakarra eta bera. Gure mundu txiki hau osatzera irits daitekeena. ■



Alberto Barandiaran



## » TELEGRAMA

Fanzine feria txikia antolatu dute Gasteizko Sonora tabernan: apirilaren 22an eta 23an **Fugaz** ekimenean autoedizioaz, copyleftaz eta musikaz gozatzeko aukera izango da **STOP Ainara LeGardon** banda osoarekin ariko da Donostian. Non? Dabadaba aretoan. Noiz? Apirilaren 23an. 10 euro baino ez, sarrera aurretik eskuratuz gero **STOP Nafarroaren Eguna** ospatuko dute Baigorri apirilaren 24an. Egun guztian bi aldeetako euskaldunen ahizpatasuna sustatzeko mota askotako kultur ekitaldiak prestatu ditu Basaizea elkarteak **STOP**

## » DISKOA

## Ahaztu iragana; hemen gaude



Iker Barandiaran



### Barakaldo Punk Rock City

ASKOREN ARTEAN

Frenetica Rec

Porco Bravo taldea

KOLDO ORUE



Ezagun da Bilboko Ezkerraldeak lotura handia izan duela punkarekin eta rock indartsuarekin, eta horietatik nabarmena da Barakaldok zeregin horretan bete duen papera. 2013an Gotzon Hermsilla kazetari eskarmentudunak *Barakaldo revienta (Historia secreta del punk-rock en Barakaldo)* liburua idatzi eta argitara eman zuen, tamainan hiria den Barakaldok musika estilo horietan barrena emandakoa zehatz-mehatz errepasatuz.

Orain merkatalgune erraldoiz, eraitsitako enpresaz eta langabeziak itotako enpresaz betetako hiri horren historia eta oraina musikaren bidez hobe ezagutzeko beste pauso bat eman dute; hala nola, bertako hainbat musikari eta musika zalek gaur egun indarrean dauden hamabost musika talderen kantuekin osatutako disko-bilduma osatu dute, eta bertan, diseinu erakargarriak lagunduta, talde bakoitzaren nondik norakoak modu oso argigarrian azaldu eta hauen guztiaren diskografia batu dute.

Ez daude talde guztiak, jakina. Bultzatzaileen asmoa izan da punk-rockaren inguruan dabilen taldeak batzea. Horien artean badira aspaldi sortutako taldeak, 80ko hamarkadakoak alegia, luzaroan geldu izan direnak eta gerora ere indarberrituta bueltan direnak. Rockaren pozoiak odolean luzaroan jarraitzen duenaren seinale. Dena dela, beste herri eta hiri askotan bezala talde eta proiektu desberdinetan abizenak, goitizenak

eta funtsean partaideak errepikatzen dira, azken finean rocka eta punka maite dutenek askotan familia bera osatzen dute-eta.

Parabellum da Barakaldok izan duen talde ezagunena eta berorren kide Txetxuk sortutako La Kontrak zabaltzen du diskoa, 77ko punketik, Vomitotik eta gitarra indartsuetatik asko duen kantuararekin. Paniks *rara avis* da eta garage-punkaren bidezidorrean Billy Childish handia omendu du. Obsesion Fatalena punk-rock-and-rolleroa da eta ahotsean Natxo gogora ekarrita MCD rockeroena ere du gogoan. Tiparrakers ezuste oso atsegina da: gitarra irudimentsuak eta indartsuak erabilia La Traperako Morfiren parera abesten du. Putakaska bizirik da oraindik, eta 80ko hamarkadako punk talde melodikoenak ekarri dizkigu gogora. Radiocrimenek pertsonalitate handiko ahotsa dauka eta oraingoan melodiko aritzen da. Audiencia Nacional asko du poesiatik. Porco Bravo hard-rock-etik barra-barra edaten duen punk-rock-and-roll bizia da. Eta badira gehiago, jakina: horra hor, berpiztutako Radikal Hardcore, Si Te Cah-rekin batera hardcorea lantzen duen bakarra, Distorsion mitikoa, horien trans-eraldaketa den El Lobo de Armañón, Karretera Agropecuaria zein, nola ez, Parabellum hiria omenduz.

Sasoian dago Barakaldo, eta hala uste ez duenak probatu dezala hemendik. ■

# Mundu bat gaztelania eta ingelesetik pasa gabe

## EUROPA BAT-BATEAN

Apirilaren 17an Hernaniko Biteri Kultur Etxean lau hizkuntza gutxitutako kantu inprobisatuak uztartu zituzten oholtzan: Sardinia-ko Simone Monni eta Paola Dentoni; Zinar Ala kurdua; Herrialde Katalanetatik Christian Simelio eta Anais Falco eta bertako Arrate Illaro eta Maialen Lujanbio. Hurrengo emanaldiak: apirilaren 20an Iruñean, 21ean Markina-Xemeinen, 22an Uztaritzen eta 23an Aramaion.



Estixu Eizagirre Kerejeta  
@eeizagirre

Estaturik gabeko lau herritako lau hizkuntza gutxituetan egiten den kantu inprobisatutik zertxobait eraman genuen golkoan emanalditik. Eta hitzunon poza, konplizitate beroa, Maialen Lujanbiok hasierako eta amaierako agurretan seinalatu zuenez, gozatu genuen emanaldia ez baitzen izan “mundu mailakoa, baizik unibertsala”; eta emanaldi eleantza posible izan zelako “gaztelania eta ingelesetik derrigor pasa gabe”. Inprobisatzaileek amaitu ostean laburpena euskaraz irakurri genuen atzeko pantailan. Hala, erritmo egokian jarraitu genuen zuzeneko jarduna.

Bat egin genuen Zinar Alarekin, Alemanian bizi den kurduak publikoari derrigorrezkoa zuela gure kolaborazioa adierazi baitzigen, ezagutzen zituen euskarazko hitz guztiak erabiliz, Ankarako Espainiako enbaxadak ez baitzien bi inprobisatzaile kurduak etortzen utzi. Ulertzekoa, kurduak kantagai sarri mina izatea, dengbêja bidez herriaren historia eta ezinezko maitasunak harilkatzea, *Iritsiko da Eguna* bertso jarrietan entzun genuen gisa.

Sardiniarrek ere eguneroko gaiei heldu zieten, zabalean planteatuta, erdi librean ariko bailiran: landako bizitzaz



Zinar Ala kurdua “Iritsiko da Eguna” bertso jarriak kantatu berri.

XDZ

eta hirikoaz aritu ziren. Entzuleontzat harrigarriena kantakera izan zen: Cantadoreek inprobisatu ahala, atzean ahots oso grabez oinarrizko akordeak pausatzen zituzten bi koro egilek (Stefano Cara eta Michele Deiana) janzten baitzuten kantua. Ideia bera modu ezberdinetan ematen du cantadore bakoitzak, eta doinuaren solemnitateran ironia fina erabili zuen Simone Monni gazteak, esaterako, udaberriaren edertasunarekin batera zementua larretara azkar hedatzen dela kantatuz, (sasi?) metaforikoki. Han eta hemen eguneroko borroka txikiak (kasu honetan, elikadura burujabetzarena) berak direla oihartzeko ere balio izan zigun emanaldiak, Paola Dentonik amaitu baitzuen kantaldi hura gogoratuz “ez dugu landa utzi behar jaten ematen digun lurra baita”.

Katalanek glosa, garrotina eta corrandak kantatu zituzten, Gerard Diezek soinu txikiarekin lagunduta. Publikoak bakoitzaren leloak kantatu genituen. Ez zuten aukerarik galdu euskaldunok partekatzen dituzten erreferentziak erabiltzeko. Bertso politikoenak hauek kantatu zituzten, umore kolpez jantziak. Esaterako, Christian Simeliori bakarka

aritzeko gaia jarri zion Maite Berriozabalek: “Lapurra izan zara, baina lanean hastea erabaki duzu”. Simeliok bota zuen orain legalagoa dela egiten duena, “ulertuko duzue, PPko zinegotzia naiz”. Gaiak planteatzeko modua eta hauei ekitekoa hemengo bertsolarien oso parekoa dutela ikusi genuen. Horren lekuko, Anais Falco eta Maialen Lujanbiok egin zuten saioa, biak corrandakin doinuarekin, eta Lujanbiok itzultzaile behar ez zuela, elkarri erantzunaz. Emanaldiko puntu gorenetakoa izan zen.

Arrate Illarok Sardinia-ko Simone Monnirekin eginiko saioak ere utzi zuen kolpe ederrik.

Amaierako agurrak biribildu zuen emanaldia, guztiak Herrialde Katalanetako doinu berean kantatu baitzuten, bakoitzak bere herrialdeko instrumentuz lagunduta. Elkarrekin oiholtza gainera soilik ez, egun osoa partekatzearen emaitza, inondik ere. Lehen emanalditik bigarrenera jauzi handia nabaritu bada konplizitatean, kantu inprobisatuak besteekin josteko moldean, nolakoak izango ote dira hurrengo emanaldiak? Ez galdu bizitzeko aukera, edo gutxienez, bidez ikustekoa (bertsoa. eus-en). ■

Egilea: Ana Zambrano

### Gurutzegrama

Gaia: Emakumeak eta zinema

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	
1																							
2																							
3																							
4																							
5																							
6																							
7																							
8																							
9																							
10																							



2. Ezker-eskuin (Arg: geuria.eus)



7. Ezker-eskuin (Arg: Zinemaldia)



8. Ezker-eskuin (Arg: Fotogramas)



7. Goitik behera (Arg: Anboto-CC By SA)

**Ezker-eskuin:**

1. Txerrama. Zuka hitz egitea. Erretegi. 2. Jakintza batean erabiltzen diren hitzen multzoa. ... **Ituño, Loreak** filmeko protagonista Nagore Aranburu eta Itziar Aizpururekin batera. **Goenkale** telesailan Nekane komisarioaren papera bete zuen. 3. Suitzako ibaia. Saldu aditzaren infinitibo. Landare mota. 4. Lasai. Danbadak, desarrak. 5. Santutasunez. 6. Atal, instalazio-multzo. 7. Hotzez. **Karme** le, **makillatzaile** donostiarra, **iaz Zinemaldiko Zinemira** saria jaso zuen. Goya sari bat eskuratu zuen **La piel que habito** filmean egindako lanagatik. 8. ... **Elias**, aktore zarauztarra, **Amama** filmeko protagonista, aktore berri onenaren Goya sarirako izendatu zuten film horretan egindako lanagatik. Trukatzea. 9. Aro historikoa. Zerbaiten une gorena. Sarri. 10. Gaixo, errukarri. Buruzagi musulmana. Maiztasun.

**Goitik behera:**

1. Garai, aldi. Aleak. 2. Modu atzizkia. Bizkarrezurreko segmentu. 3. Dezimetro. ... egin, eskaini eta ez eman. 4. Lehen bi bokalak. Higitze lasterraren onomatopeia. 5. Manganesoa. Kasik. 6. Hutsak, erruak. Neodimioa. 7. ... **Izaguirre, Zornotzako zinemagilea, 2013an Sormenaren bide ezkutuak** film laburra egin zuen Eneko Atxarekin batera. Iazko Zinemaldian **Un otoño sin Berlín**, beraren lehen film luzea, estreinatu zuen, eta film horretan egindako lanagatik Irene Escolarrek Goya sari bat eskuratu du aurten. 8. Saski handi. 9. Utikan! Nitaren sinboloa. 10. Haziak gordetzen dituen bildukin. 11. Eraikina. 12. Estoniako hiriburua. Noren atzizkia. 13. Diru-zigorra. 14. Leku. 15. Sufritu. 16. Dut (alderantziz). 17. Nori atzizkia. Txera egin. 18. Bihar ez, hurrengoan. Landa, salbu. 19. Gaizto, oker. Haur hizkeran, musua. 20. Etxeko hegazti. Musika nota (alderantziz). 21. Gorotza. Aditzak sortzeko atzizkia. 22. Irekia denaren nolakotasun.

### Betegrama

Taulan hutsik agertzen diren laukiak osatu zeharretara eta goitik behera, hitz guztiak irakurri ahal izateko.

			I			
		O		A		
	U			U		
Z	O				L	E
	U				E	
		A		I		
						U

### 5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.

1. Musika.
2. Borondatez, gogoz.
3. Atera.
4. Lanak eragiten duen ahultasuna.
5. Gogo biziak.


### Soluzioak


**Ezker-eskuin:** 1. Urdama, Zuketa, Erretoki. 2. Nomenklatura, Itziar. 3. Auz, Sai, Zalka. 4. Trankil, Tiroak. 5. Santuki. 6. Unitate. 7. Hotzik, Soler. 8. Iria, Trukada. 9. Antzin, Zenit, Tapitu. 10. Kotadur, Imana, Usutasun. **Goitik behera:** 1. Une, Bihaiak. 2. Ro, Orno. 3. Dm, Tati. 4. Ae, Zitz. 5. Mn, Iria. 6. Akatsak, Nd. 7. Lara. 8. Zaran. 9. Ut, Nt. 10. Kusku. 11. Eraikuntza. 12. Tallin, Ren. 13. Isuna. 14. Toki. 15. Alatu. 16. Ted. 17. Ri, Txeratu. 18. Ezi, At. 19. Tzar, Pa. 20. Olio, Is. 21. Kaka, Tu. 22. Irekitasun.

## Eduardo Apodaka. Zeratzan gaituen zera



Euskal Herrian badago ezberdina den zerbait, esan ezinezko zer edo zer, diferente egiten gaituena. Sarritan entzun dugu halakorik, baina “zera” hori zehazki zer den azaltzen jakin gabe. Eduardo Apodaka izan da mahukak jaso eta zehaztaperen bila hasi den bakarretakoa. 2015ean argitara emandako *Identitatea eta anomalia* liburua da emaitza.

## “Gure dantzak, gure ohiturak, gure ikurriña... Hori porno identitarioa egitea da”



Arantza Santesteban

@a\_santesteban

ARGAZKIAK: IÑIGO AZKONA

### Sare sozialak

“Sare sozialen garaian bizi gara baina ni ez naiz haien zale sutsua. Ez dut Twitter edo Facebook konturik, nahi ez dudalako. Polemikaren espazio bihurtu dira, eta energia asko galtzen da horretan nire ustez. Nahiago dut patxadaz aztertu gauzak, idatzi eta horri bide ematea”.

#### Definitu daiteke identitatea azalpen konplikatuena eman gabe?

Ez da erraza definizio bakarra ematea; izan ere, milaka daude soziologian, psikologian, politikan, kalean... Dena dela, nire ustez, ez daude elkarrengandik hain urrun. Identitate terminoari ematen diodan erabilerak ikuspegi psikosoziala du oinarri: besteentzat zer garen, eta besteentzat garen neurrian, gure buruentzat ere zer garen. Besteekiko identiko duguna da identitatea eta era berean, besteengandik ezberdintzen gaituena. Bizi dugun gizarte egituraren barruan ematen den joko bat da, nire ustez.

#### Esango nuke gaur egun ez dela oso ondo baloratua identikoa izatea.

Modernitatearekin sortu ziren nazio-estatuetatik gatz. Sistema horiek sortu zirenean politika guztiek izaera orohar-tzailea zuten, hori zen joera nagusia: sistema osoak eta berdintzaileak sortzea. Gaur egun ordea, gauzak aldatu egin dira. Gaur egungo sistemek diferentzia eta aniztasuna behar dute bere mui-

nean; diferentzia erakitzeak kontsumoa ahalbidetzen du, bere barne logika identitatearen inguruan erakitzen delako. Horregatik gaur egun demokrazia benetakoa izan dadin, kolorea behar du, diferentzia bildu behar du.

#### Jadanik ez dira baztertzen identikoak ez direnak?

Garai batean –modernitatean– diferentziak ziren kanporatuak izaten ziren sistematikoki; afrikarrak, sorginak... Gaur egun diferentzia horietako batzuk sistemaren barruan eroso egon daitezkeen bilatzen da. Adibidez, *Ocho apellidos vascos* (Zortzi abizen euskaldun) filmean euskaldunaren diferentzia ikusten dugu. Ezberdintasun horiek barrengarriak dira, ondo mugatuta daude, ez dira gatazkatsuak... Integratu egiten dira. Homosexualitatearekin antzeko zerbait gertatzen da, diferentziatik integratzea igarotzeko ahalegin handia egiten du sistemak.

Halere, zuk anomaliaz hitz egiten duzu. Hori al da integratzen ez den diferentzia?



*“Euskal Zera deitu diot nire ustetan euskal anomalia den horri. Beti zabalik dagoena eta beti definitzen ari garena. Ez da berez identitate bat, oraindik ez garelako sistema oso bat”.*

Hala da. Aipatu dizudan azken adibide horrekin lotuta queer teoria daukagu. Nire ustez, diferentzia hori mantentzeko saiakera da: queer teoria anomalia izaten jarraitzeko ahalegina da. Identitate hegemonikoari “ni ez naiz zu bezalakoa” esateko etengabeko ariketa.

#### **Euskal Herrira ekarrita, *Euskal Zera*?**

Bai. *Euskal Zera* deitu diot nire ustetan euskal anomalia den horri. Zera hori definiezina da, beti zabalik dagoena eta beti definitzen ari garena, inoiz bukatzen ez den ariketa. Horrexegatik esaten dut *Euskal Zera* ez dela berez identitate bat; izatekotan, sistema horren barruan dagoen diferentzia edo anomalia dela. Zergatik? Oraindik ez garelako sistema oso bat. Queer teoriaren logika berbera ematen da gurean, jakina, ez hain modu erradikalean, baina funtsean guk identitateari esaten diogu: anomaloa naiz, baina era berean zure parekoa naiz. Ni neu ere sistema oso bat naiz; menderatua, baztertua, zatikatua baina nire buruari ematen diodan ontologia identitatearena da, hain zuzen ere.

#### **Pornoa eta post-pornoa erabili dituzu esandakoa ondo azaltzeko.**

Pornoa diferentzia azaltzeko erabiltzen dut: gure dantzak, gure ohiturak, gure ikurriña... Horrekin identitate nagusiaren beste osagarri bat bihurtzen gara, hori porno identitarioa da nire ustetan. Baina esaten dugunean: gu ez gara hori bakarrik, beste hau gara eta zu bezain identitate gara. Hori, post-pornoa egitea da, niretzat. Post-pornoko praktika sexualak porno konbentzionaletik ihesi dabilta, baina era berean marko bat dute, sistema bat sortzen dute, eta horrela auzitan jartzen dute pornografia ofiziala. Hori da nire ustez *Euskal Zera* -rekin gertatzen dena.

#### **Euskal estatua praktika post-porno hori eraikitze bidea izan daiteke?**

Bai, nik estatuaren beharra hor kokatzen dut. Eta ez diot estatuaren aldekoa naizenik, izan ere, estatua ez baita elkarrekin bizitzeko dugun ezinbesteko tresna. Une honetan ordea, tresna baliagarria izan daiteke. Halere, ez du zertan jende guztiarentzat berdina izan,

muinean azaldu behar duzu zertarako nahi duzun estatua. Askotan pentsatzen den bezala, ez da kantabriarrak edo galegoak baino hobek garelako, hori argudio arrazista da. Guk estatu bat nahi dugu diferenteak garelako, singulartasun bat eraiki dugulako historian eta etengabe gure burua asmatu dezagun egitura politiko bat behar dugulako.

#### **Zertan jartzen du euskal anomaliak arriskuan identitate hegemonikoa?**

Anomalien bertute nagusia identitatea biluzteko duten ahalmena da. Anomaliak identitatea interpelatzen dute: zu ere kontu historiko bat zara, ez zara berezkoa, historian modu bortitz batean sortu zara, asmakuntza zara, menderakuntza harreman baten ondorio zara... Eta gu horren ondorioz anomalia bat gara eta ez gaude ados tokatu zaigun tokiarekin. Modu horretan uzten dugu agerian identitate hegemonikoaren izaera. Bestalde, anomalia izatea ez da erraza, oso gogorra da eta askotan egon behar dugu diferentzian atseden hartzen. ■



## Hasi dira diskurtso ultraeskuindarren merkealdiak Euskal Autonomia Erkidegoan

Korrikaldiak, bultzakadak eta eromen kolektiboa nagusitu dira El Corte Inglés Blanco y Europeo merkatalgunean. Iritsi da eguna: hauteskunde gertutasunarekin bat eginez, hemen dira merkealdiak diskurtso ultraeskuindar eta xenofoboetan. Aste honetatik aurrera, erdi prezioan eskura daitezke pobre izateaz gain azal iluna duen jendearen kontra egiteko programa politikoak. Gainera, kargu publikoren bat daukatenek doan jasoko dute *Dei efektuaz hitz egiteko eskuliburua*, ezinbesteko materiala edozein politika sozial bertan behera uzteko etorkinen aitza-kian. Apalak atzaparka husten ari zela hitz egin dugu Maite LePeña gipuzkoa-



rrarekin: "Sekulako pagotxa! Sekulakoa! Lau trapu zahar besterik ez zitzaizkigun geratzen etxean eta ipurdi bistan geratzen hasiak ginen. Orain ederki luzituko dugu Frantziatik datorren moda berri honekin".

## Gozategi ikustearren EHZra joango den pertsona bakarra aurkitu dugu

EHZ jaialdiko arduradunek eskari harri-garri askoa jaso dute: Gozategiren kontzertua besterik ez ikusteko sarrera. "Aizarnazabaletik iritsi zaigu eskutitza, Joseji Menezsan Chez Rodriguez delako batek izenpetua", elekatu du Battitta Guçiocaintchina festibaleko eledunak. Prezio beragatik Willis Drummond edota Crystal Fightersen emanaldiez gozatu nahi ez ote duen galdetu diote Menezsan jaunari, baina hark, temati, ezetz esan du, eta gozatzeko nahikoa duela Gozategi. "Ez dakit hitz jokoa harrapatuko den", gaineratu du harro-harro, eta konplizitate keinua egin du begi bat itxita.

Zer gerta ere, EHZko antolatzaileek jende arraroaz eta zuberotoarrez arduratzen den segurtasun protokoloa abiaraziko dute. "Urtero izaten da halakoren bat; iaz lanak izan genituen Benitoren *Herri-behera Jota* kantatzera agertokira igo nahi izan zuen bilbotar bat geldiarazteko. Beharrik ondoko herriko hiru errugbilari baziren inguruan!".


Bigarren ezustekoa Fermin Muguruzak eman du, eta ez nolana hiko: festibalean argazkirik egin ez diezaiotela nahiago duela esan du irundar artista handiak. Haren hurkoek medikuari deitu diote berehala, kezkatuta zeharo.

### SAREAN ARRANTZATUA

#### Haien gerri onak gure Gerri Txarrak direlako



### Gasteiz Gaztea



# ARGIAKOEN (G)UNEA

Gure gaiak dira gure baloreak,  
ARGIA kideak gure oinarria

OROIMEN HISTORIKOA  
PAREKIDETASUNA  
HERRIEN MUNDUA  
HEZKUNTZA ERALDATZAILEA  
**EUSKALZALETASUNA**  
ELIKADURA BURUJABETZA  
INDEPENDENTZIA  
DEMOKRAZIA ZUZENA  
DESOBEDIENTZIA ZIBILA  
GIZA ESKUBIDEEN DEFENTSA  
ERABAKITZEKO ESKUBIDEA  
SEXU ASKAPENA

Atal honetan, herri eragileen lana ezagutarazi eta urtean zehar kaleratutako materiala zozketatuko dugu hilero ARGIAko harpidedunen eta Piztu Ezazu ARGIAren bitartez ekarpen ekonomikoa egiten duzuenon artean.



Euskarazko astekari zaharrena gara, Zeruko Argiaren oinordeko, eta 2019an ehun urte beteko ditugu euskarazko kazetaritza egiten. Urrunago goaz ordea, eta euskarazko kazetaritza egiteaz gain, gure irakurleei euskaltzale aktibo, euskararen erabileran eragile, izateko tresnak eskaintzen saiatzen gara.

APIRILEKO ZOZKETAK



**Kontseilua eta  
Euskaraz Bizi Nahi dut (3 saski)**

**Kontseilua**  
kontseilua.eus



**Irten hizkuntzaren armairutik  
(5 liburu)**

**Emun**  
www.emun.eus



**Azken Txorakikeriak**

**ARGIA**  
www.argia.eus/denda



**Euskal Herrian Euskaraz-en  
materiala**

**Euskal Herrian Euskaraz**  
www.euskalherrianeuskaraz.org

Herri mugimenduko eragilea bazara eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan

**PARTE HARTZEKO**

☎ 943 371 545  
gunea@argia.eus  
www.argia.eus/gunea

# ATXEGA JAUREGIA

*jatetxea*

ATXEGA  
JAUREGIA



Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

[www.atxegajauregia.com](http://www.atxegajauregia.com)